

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

2021-12-23 OSTEGUNA / 800. ZENBAKIA / 2. ARDA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM



2022
URTE BERRI ON!



Egoi Martinez De Esteban, txirrindularien ordezkaria. JULEN SOTO SATRUSTEGI

"Txirrindulariak laguntzea da nire egitekorik gustokoena"

EGOI MARTINEZ DE ESTEBAN TXIRRINDULARIEN ORDEZKARIA

Bere kirol bizitzan faltan sumatu zuen laguntza txirrindulari gazteei ematea da bere helburua

Julen Soto Satrustegi ETXARRI A.

Berehala zortzi urte beteko dira Egoi Martinez e Esteban txirrindulari ohia 2013an azken aldiz profesionalki lanean ibili zenetik. Gaur egun etxarriarrak kirol horri lotuta jarraitzen du, nahiz eta beste modu batera izan. Txirrindularien ordezkaria da, eta orain profesionalki jarduten duten txirrindulariekin egiten du lan.

Abenduaren 28an zortzi urte egin-gitu erretiratu zinenetik. Zer sentiarazten dizu honek?

Ez da erraza. Bizimodu erabat ezberdina daukat. Egunero bete-behar bat, motibazio bat, ilusio bat daukazu bizimodu batetik ezberdina den beste bizimodu batera pasatzen zara, askatasun askoz gehiagorekin, baina erreferentzia gutxiagorekin, eta ez da erraza. Hasiera batean kostatu zitzaidan, ez zen erreza izan pausoa ematea. Baina denborarekin ikasten duzu beste erritmo batean bizitzen, eta orain beste fase batean nago, askoz hobe, nahi dudana egiten dut eta gehiago disfrutatzen dut. Nire bizimodu berria askoz hobeto eramaten dut.

Orain txirrindularien ordezkaria zara. Nola hasi zinen honetan?

Nire azkeneko pedal kolpeak ematen ari nintzela, nire ordezkaria zen Angel Edok bere proiektuan laguntzeko eskatu zidanean izan zen, nik txirrindularien eguneroko bizitza errazago edo hobeto egiteko gaitasuna neukala pentsatzen baitzuen, eta hori dela eta pentsatzen ibili nintzen. Hasiera batean ez nekien oso ondo zer zen lan hori, baina beti pentsatu izan nuen nire kirol bizitzan pertsona bat faltan bota nuela, nire lagun, familia ordezkari edo gidari moduko bat. Ikusi nuen figura hori betetzeko ahalmena edo ilusioa baneukala eta horrela hasi nintzen, pixkanaka kirolariengana hurbiltzen. Lehenengo urtea nire ahalmena frogatzeko hartu nuen. Gauzak ondo atera ziren eta hemen gaude, zazpi urte beranduago eta jarraitzeko asmoz.

Ez zenuen aukera ikusten txirrindularitza guztiz uzteko, eta bertan jarraitzeko beste bide bat ikusi zenuen.

Bai, garrantzitsua da zuk esaten duzuna. Nik beste modu batean jarraitzeko aukera eduki nuen, baina kirolak daukan gauza txarretako bat etxetik kanpo egun asko pasatzen dituzula da, eta nik ez nuen hori nahi. Txirrindulari bezala gauza asko galdu nituen, gazte garaikoak edota familiakoak, eta argi neukan nire hurrengo lanerako etxeko gizon izaten ere saiaturiko nintzela. Normalean etxean nago, bertatik egiten ditut lanak, eta noizean behin txirrindulariekin egoteko edo negoziazio batzuk aurrera eramateko mugitzen naiz. Lan honek bere alde txarrak ditu, baina gauza oso on bat dauka, eta hori etxean nagoela da. Hemen egoten naiz, semeekin egunero nago eta hori da lan hau hartzeko pisu gehien izan zuen arrazoia.

Zer da zehazki lan hau?

Helburua txirrindulari batek lana edukitzea da. Gauzak ondo doazenean ahalik eta diru gehien irabaztea, eta gauzak txarto doazenean talde bat edo aukera bat edukitzea. Horren atzetik gauza asko daude, eta azkenean txirrindulariaren ezinbesteko pertsona bat bihurtzen zara, bai familiaren, bai ekipoaren, bai bikotearen edo eguneroko entrenamenduen lotura modukoa. Lan pila bat dago, eta txirrindulariaren konfiantzazko gizona bihurtzen zara. Momentu politak elkarrekin bizitzen ditugu, eta momentu txarrak ere. Normalean momentu onetan nik ez dut hori partekatze beharrik sentitzen, eta txirrindularia bere familiarekin uzten dut. Momentu txarretan egotea tokatzen zaigu gehiago. Nik uste dut atzetik gauza asko daudela, eta gustatuko litzaidakeena da etorkizunean txirrindulariak esatea lagungarria izan nintzela bere kirol bizitzan. Hori da lortu dezakedan altxorrik hoberena.

Gainera zuk ere konexio berezia daukazu txirrindulariekin, zu ere txirrindularia izan baitzara, eta beraien egoeran egon zara. Horrek ere ordezkatzeko dituzun txirrindulariekin konexioa handitzen du.

Hori da. Txirrindulari bezala, nire burua ez zen nire armarik hobe-



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak
www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea · Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika modernoa

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



rena, eta askotan konfiantzazko pertsona baten falta sentitzen nuen, momentu oro nik zer sentitzen nuen ulertzen zuena. Bizitza zaila da eta txirrindularitza oraindik zailagoa, oso emozionala baita. Momentu onak oso politak dira, baina oso gutxi bizitzen dituzu, eta momentu txarrak oso gogorak dira. Emozionalki hain gogorra den zerbait bizitzean, badaude zorte handiagoa duten batzuk eta beraiek bakarrik emozio horiekin aurrera jarraitu dezaketena, baina beste askok laguntza behar izaten dute. Nik etapa txar baten ondoren sentitzen duzuna bizi izan nuen, entrenamendu txar baten ondoren, gaixotasun baten ondoren, lesio baten ondoren... Badakit zer sentitzen duen txirrindulariak, zer hitz behar dituen. Hori guztia bizi izan nuen, eta banekien zer sentitu nuen faltan, hortaz, gaur egungo txirrindulariei laguntza hori ematen saiatzen naiz.

Zein izan dira eduki dituzun oztopo eta erraztasunak proiektu berri honekin hasterakoan?

Oztopo handiena ordezkariaren figura da. Ordezkaria ez dago ondo ikusia pelotoian, normalean txirrindularia garestitzen duen pertsona baitzara. Txirrindulariak beti nahi du diru gehiago, eta taldeak beti gutxiago ordaindu nahi du. Orduan, zu zara egoera zail horretan aurpegia eman behar duena. Normalean txirrindulariak beti pentsatzen du daukana merezi duela, eta taldeak beti pentsatzen du ordezkaria hor egongo ez balitz txirrindularia merkeagoa izango litzatekeela. Kirol munduan askotan ikusi izan da ordezkaria diruan bakarrik pentsatzen duen pertsona bat bezala. Honek negoziazio bat itxi nahi du horretatik portzentaje bat irabazten duelako, eta zenbat eta negoziazio hobe, orduan eta portzentaje handiagoa... Figura honen irudiaren kontra asko kostatu zait, baina zaharitzen ari naiz, eta geroz eta gutxiago inporta zait besteek pentsatzen dutena.

Zer uste duzu dela garrantzitsuena lan hau ongi egiteko?

Gauzak argi eta moral puntu bat edukitzea. Nik uste dut alde guztiak pozik sentiaraztea lortu daitekeela. Askok esango dizute ordezkari ona izateko pertsona hotza izan behar zarela. Azkenean, ordezkari onena zein da? Kontratu handienak lortzen dituen. Beno. Beste batek esan dezake kontratu justuak lortzen dituen dela onena. Niretzat ordezkari onena gauza justuak egiten dituen da, oreka horretan, txirrindulariak soldata on bat dauka, eta taldea sinatu duen kontratuarekin pozik dago. Zaila da, baina lortzen duzunean oso polita ere bai.

SAKANA

Nola ikusten duzu txirrindularitza Sakanan?

Sakanak oso urte onak pasa izan zituen profesional askorekin, Etxarrin bi, Urdiainen hiru, Altsasun bat, Uharten beste bat... Eta orain, ba Gorka Izagirre dago Ziordian bizitzen, nahiz eta he-

mengoa ez izan, eta Igor Arrieta Uharten. Ez bakarrik Sakanan, Euskal Herrian, eta baita estatuan jaitsi egin da txirrindularitza, argi dago. Ez dakigu zergatik. Beste herrialde batzuetan, Ingalaterran, Danimarkan, edo Eslovenian adibidez, txirrindulari berri asko daude, baina hemen ez. Nik uste dut gauza jarraitzea dela, hemen txirrindularitza garrantzitsua izan da beti, gustatu izan zaigu, eta nik uste dut garai onak itzuliko direla.

PANDEMIA GARAIA

Oraintxe bertan pandemian gaude. Eragin handia izan du zure lan egiteko moduan?

Nahiko ondo salbatu da gauza. Egia esan 2020 urtea zaila izan zen, lasterketa asko ez ziren egin, baina babesleek ondo erantzun zuten, txirrindulariek beraien soldata normalean ehuneko ehuna ez baina maila altu batean lortu zuten, eta zirkuak jarraitu zuten. 2021ean ia lasterketa guztiak egin dira, txirrindulari burbuile-

tan ez baitziren positiborik egon. Hortaz, ekonomikoki ez da desastre bat izan. Baina pertsonalki niretako, esaterako, bai. Nik daukadan gauza politena txirrindulariekin mantentzen dudana kontaktua da, beraiekin entrenatzea, egun bat elkarrekin pasatzea, eta aurrez aurre hitz egitea. Telefonoz eduki dezakezun elkarrizketa batek ez dauka zerikusirik bizikleta baten gainean daukazun elkarrizketarekin. Bertan konexio berezi bat lortzen duzu, gazteek hitz egiten dizute eta zuk zure iritzia ematen duzu. Askok politagoa da niretako, eta pandemia honekin kontaktu hori faltan sentitu dut. Orain berriro hasi gara, baina betiere kontuz ibiliz egoera honek jarraitzen baitu, eta nik ez dut nahi txirrindulari batek nirekin egon ondoren positiboa dela esatea. Niretako ez da arazo bat, baina beraientzat bai, ezin baitira lasterketetara joan egun horietan. Hori dela eta kontaktua murrizten duzu gazteekin, eta nire lana ez da hain polita izaten.

Mulu Kinfen Hailemitxael

Mulu Kinfen Hailemitxael txirrindulariarekin egiten duzu lan. Nola bukatu duzu berarekin lanean?

Bizitzan bezala, badaude aurkitzen saiatzen zaren gauza batzuk, eta beste batzuk zuri aurkitzen zaituztenak. Nik hori argi daukat. Askotan lortzen dituzun gauza politak, batzuetan zuk bilatzen dituzu eta beste batzuetan zuregana etortzen dira. Eta Mulu niregana etorri zen. Istorio berezi bat da. Duela pare bat urte etiopiar batzuk egon ziren hemen, Euskal Herrian, txirrindulari izaten saiatzen, baina etxera itzuli ziren ez zutelako profesionaletara iristea lortu. Mulu orduan hasi zen txirrindularitzan. Talentu berezia zeukala ikusi zuten eta laguntzen saiatu ziren. Etiopiar haiek bazituzten kontaktu batzuk Euskal Herrian, eta nire berri jakin zuten, orduan Mulu idatzi zidan eta Delko ekipoa lortu genuen Frantzia. Horrela hasi zen.

Zertan ari da orain Mulu?

Benidorren entrenatzen dago. Hemengo hotza zaila da entrenatzeko eta prestaketa luze batzuk egitea behar zuen, hortaz han dago, baina Etxarrin bizi da. Duela gutxi bere ekipoa desagertu egin zen, eta bi urte oso txar eduki ditu. Hasieran dena oso polita zen, hiru urteko hitzarmen profesional batekin. Lehenengo urtean Covid-a iritsi zen, hortaz ez zuen ia lasterketarik egin. Gero etxera joan zen negu horretan gerra hasi zen han, Etiopian, eta bi hilabete egon

zen entrenatu gabe. Etorri zenean bi orno puskatu zituen, hortaz bigarren urtean ezta ez zuen ia lasterketarik egin, eta azkenean berriro hasi behar zenean, aurten, 2021ean, ekipoa desagertu egin da. Heldu den urterako zeukan kontratua. Hau da ordezkariaren beste lan bat, arazo guzti hauetan konponbidea aurkitzea. Abokatuekin batera, zeukan kontratua errespetatzea lortu dugu eta dena ordainduko diote. Gauza da, bi urte zail hauen ondoren, orain ekipa txiki batean egotea tokatzen zaigula. Ametsaren lehenengo urratsa, zailena, emanda geneukan, kontratu profesional bat lortzea, eta orain berriro atzera egin dugu. Heldu den urtean ekipa txiki bat edukiko du, lasterketa onekin, eta berriro kontratu on bat edukitzeko borrokatzen saiatu beharko gara.

Nola moldatzen da Etxarrin?

Oso ondo. Hemen berak behar duena aurkitu du. Han gerrak jarraitzen du, ez dauka familiarekin kontaktua, ez daki ezer beraietaz, ezin da etxera itzuli... Berak familia bat, maitasun hori behar zuen, eta Etxarrin aurkitu du. Herri txikia da, denak ezagutzen dugu elkar, eta orain Mulu hemen famatua da! Nirekin familia bat dauka, nire gurasoeekin eta nire haurrekin aurkitzen du maitasun hori, eta oso gustura dago. Frantziatik dator eta han etxe batean bakarrik bizi zen. Hemen etxean bezala sentitzen da.



Egoi Martinez ordezkaria eta Mulu Kinfen txirrindularia. EITB

Baina barruan beti dauka bere amarekin edota anaiekin ez duela aspalditik hitz egiten, eta ez daki nola dauden. Baina badauka indar oso garrantzitsu bat, momentu honetan bizikleta dena. Horrelako egoeretan bi aukera dituzu, ezer egin gabe bakardadean deuseztatu, edo indar guztia zerbaitetan zentratu, eta berak Etxarrin aurkitu du indar hori, energia guztia txirrindularitzan jarritz. Bai ala bai txirrindulari izaten saiatzen ari da, horrela gauzak konponduko direla eta bere familiari behar duten guztia berak emango diela pentsatzen.

Nolakoa esango zenuke izan dela Muluaren ibilbidea orain arte, bai maila profesionalean baita pertsonalean ere?

Oso gogorra. Berak determinazio handia dauka. Etiopian txirrindulari izatea ez da erraza. Bere amarekin urte bat egon zen

hitz egin gabe, amak ez zuelako ulertzen. Gainera, bera familiako zaharrena da, ez dauka aitarik, hil egin zen, eta han horrelako kasuetan familiako zaharrenak aitaren papera hartu eta etxeko lanak egiten ditu. Baina berak txirrindulari izan nahi zuen, eta hiriburura joan zen. Hau dela eta, familiarekin kontakturik eduki gabe egon zen urte batez. Gero hiru urteko kontratua lortu zuen, dirua irabazten hasi zen, eta orduan ez hitz egitetik, errege izatera pasatu zen bere etxean. Baina orain ekipoa desagertu eta berriro hasi behar da, bere jaioterrian gerra dago... Muluarekin asko ikasten duzu, nola izan daitekeen norbait hain adonetsu eta hain indartsua. Berak argi dauka daukan energia guztia honetarako erabili behar duela, eta ez malkotan egoteko. Guretzat ere adibide bikaina da.



ASTEKOA

YOLANDA OLASAGARRE

Herrikoa bizitza

Ez pentsa, herrian bizitzeak baditu bere arau propioak eta zein diren jakitea lagungarria edo oztopoa izan daiteke herritarrondako zein herrira bizitzera etorri direnendako. Herrian, gutxi-asko gure istorioa, familia eta bestelakoak besteendako ezagunak dira. Esan genezake, hirian bizi direnekin alderatuta ñabardurak badirela, herrian (herriaren tamainaren arabera) gehienok elkar ezagutzen dugulako, badakigu halako ze etxetako den, non bizi den, herriko etxebizitzak ere neurri batean ezagunak ditugu eta gure inguruan bizi direnen inguruko informazioa izatea gustuko dugu.

Sarritan denda eta tabernetan dauden hartu-emanen ondorioz eskuratzen dugu informazio hori, halakok non lan egiten duen, etorri berria nongoa den, non bizi den, eta abar. Asmo bereizirik gabe sortzen den jakin-mina. Batzuek pentsa dezakete kontrol sozialerako egiten dela, baina, esanen nuke, gehienetan helburua ez dela hori izaten.

Halere, gaur egun, bizimoduan herrikook eta hiritarrok zenbait kontutan nahiko berdindu bagara ere, herrietako bizimoduek eta ohiturek badituzte zenbait ñabardura.

HERRIAN, GUTXI-ASKO GURE ISTORIA, FAMILIA ETA BESTELAKOAK BESTEENDAKO EZAGUNAK DIRA

Horietako arau edo ohitura bat elkarri agurtzearena da, alegia, kalean elkarrekin gurutzatzen garenean agurtzea edo diosal egitea (nahiz eta, elkar ez ezagutu), elkarri begiratu eta agurtu, –egun on, epa, gero artio–, edo burua jaso edo eskua, edo dena delakoa.

Horren inguruan izaten da nolabaiteko diskusioa, ez baitago ongi ikusia, oro har, herrian ez agurtzea. Kontu honek batzuetan kanpotik etorritakoei eragiten die, agian, halako ohitura dagoela ez dakitelako-edo. Eta, huskeria badirudi ere, gauza inportantea dela aditzen dut inguruan, eta, bidenabar lagungarria edo kontrakoa.

Sarrit pasatu zait burutik, akaso, harrera moduko zerbait egin behar ote ez zitekeen herriko ohituren berri emateko, apika, elkar ezagutzeko ere balioko lukeelako.

Hurrengo batean herriko bizitzekin jarraitzeko asmoz.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Bakea: errealitate bihurtzen ari garen nahia

SAKANAKO SARE

Hurbil dugun aroan topiko bihurtu ohi da elkarri "bakea opa izatea". Beharbada, bakea esaten diogun horrek badu horretatik guztitik zerbait. Bakea "egin" egiten da. Denon artean egin ahal izatea, horixe da gure "zoria".

Balantzea egiten hasita, orain eta hemen, balioa aitortu behar diegu azken hilabeteetan bakea eraikitze bidean egin diren urratsei. Aurrerapen nagusia izan da zeharkako adostasunak zabaldu eta sendotu izana konponbiderako agenda integral baten inguruan. Orain, adostasun horiek hedatu dira inplikaturako eragile gehiengo zabal batera (organismo sozialak, sindikalak, politikoak, ETaren biktimak nahiz Estatuak sortutako indarkerien biktimak), lurralde guztietan daude eta eremu instituzional guztiak ukitzen dituzte

(Nafarroa, EAE, Espainiako Estatu eta nazioartea).

Adostasun horiek ordezkatzeko dituztenen baturatik harago doan balio erantsia dute: *modus operandi* bat sortzen joan dira, zeinak, eraginkorra dela frogatzen duen heinean, konfiantza eta pedagogia handiz janzten baitu prozesua.

Horrekin batera, ezin garrantzitsuagoa da denok ikasi izana ezin dela inoren zain egon, aurrerapausoak mugimenduaren beraren eskutik datozela, lan ildo guztiek elkar elikatzen dutela eta inplikaturako eragileetako bakoitzak ematen dituen pausoak errazten dituela besteek eman beharrekoak, finean, batera egiten dela aurrera.

Espetxe politikari dagokionez, betetzeko dagoen bide orria ere zehatz-mehatz definituta dago: presoak EAEko eta Nafarroako

espetxeetara ekartzeko prozesua burutzea; erkidego horiek eskumenak beren gain hartzea eta baliatzea; preso guztiak arrazoizko epe batean birgizarteratzeko ibilbideak jasoko dituen plan baten aplikaziorako gaur egun dirauten oztopoak gaintitzea; besteak beste, heldu beharko zaie Estatu Frantsesean betetako zigorraren metaketaren gaia konpontzeari eta 7/2003 Lege guztiz zaharkitu eta anakronikoaren ondorioz zigortutako pertsonentzako neurri espezifikoak.

Mugimenduak mugimenduekin sortu eta bizkortzen direnez, heldu diren asteetan aukera izanen dugu kalera ateratzeko eta bertan aske uzteko energia eragile hori, gure nahia, bakea, errealitate bihurtzeko funtsezkoa zaiguna. Urtarrilaren 8an Bilboko kaleetan ikusiko dugu elkar.

GUTUNA

Urte berri on, etxarriarrok eta sakandarrok!

JON GURUTZ MAIZA ARTOLA, LUIS MARIÑELARENA GARZIANDIA, UNAI PAROT NAVARRO, JUAN RAMÓN KARASATORRE ALDAZ, ASIER KARRERA ARENZANA ETA KARLOS APEZTEGIA JAKA

A ze goguek dazkaun "herriyan bizkerrien don motxile" izetian sentsaziyo

putoi atzien utzi ta zuen artia bueltatzeko, denon artien etorkizuneko Herriye eraikitzeo.

Bei, guai sekule beño argiyo dakau gu kartzelien segitzien arrazoye guk dakaun bahitu izaeran dola. Gu preso uraita, Herriye aurria beire beño, atzia beire iltzetu nehi debie. Hortas, ein ziaun aurria Herri eitten gaittuben ezaugarri guzien garapenien, ta uler ziaun preso, iheslai eta deportatubek etxiatzeko lana

etorkizun askiat eraikitzeo inbersiyo bezela.

Hurrengo urratsak, urtarrillan 8yen Bilboko kaletan. Guazen denok alkarrekin!

Batasuna, alkartasuna eta herriarenganako lotura!

Euskal Herriye biyotzean!

Jo ta Ke irabazi arte!

Guu besarkada eta maitasunik sentittuna Lannemezan, Dueñas, Leon, El Dueso eta Martuteneko espetxeetatik.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Joxe Aldasoro Jauregi

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Hondakinen bereizketa egokia sustatzeko jokoa

Nafarroako Birziklatze Zentro Birtualak bere ibilbidea ibarrean hasiko zuen atzo. Zentro hori errealitate birtualeko betaurrekoetan jantzitako joko bat da, haren bidez birziklapenari buruz ditugun ezagutzak proba daitezke

SAKANA

Sakana hondakinen gaikako bilketaren aitzindari da. Ibarrean birziklatzeko zaleak garelako Nafarroako Birziklatze Zentro Birtuala ibarrera ekarri du Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuak. Zentro hori errealitate birtualeko joko bat da, adin guztietara egokitzen dena. Haren bidez parte hartzaileak birziklatze planta batean sartuko dira, hango garraio zinta parean kokatuko ditu. Bere paretik pasatzen diren hondakinak dagokien edukiontzietara botatzean datza jolasa. Hori azkar eta ongi egin behar da.

Partaide bakoitzak asmatze kopuruaren arabera puntuazio bat lortuko du eta sailkapenean sartuko da. Birziklatzeak saria izan du eta joko guztietan bezala, ikaskuntzaz aparte sariak ere egon dira. Parte hartzeagatik opari bikaina eskuratuko da, eta, gainera, zenbat eta hobeto eginez gero, aukera gehiago izanen dira sari handienetako bat irabazteko. Sari horien artean patinete elektrikoa dago. Gainera, parte hartzaile bakoitzak asmatutako en eta akatsen informazioa jasoko du hondakinen bereizketan hobetzeko.

Hondakin Zerbitzuko hezitzaile Amaia Okariz Ormaetxeak gogorarazi duenez, "hondakin onena sortzen ez dena da. Bizi dugun klima larrialdi honetan erantzukizunez jokatu behar dugu". Ibarrera halako ekimenak ekarritako sakandarrak sentsibilizatu nahi dituzte, "ikus dezaten hondakinak ongi bereiztea duen garrantzia, ongi birziklatuta baliabideak optimizatu daitezkeelako. Kontsumo arduratsua egin behar dugu, eta hondakinak ongi bereizi hobeto birziklatzeko".

Simulatzaile hori Hondakinak Prebenitzeko eta Ekonomia Zir-



Birziklatze Zentro Birtuala. SAKANAKO MANKOMUNITATEA

BIRZIKLATZE PLANTA BIRTUALEAN HONDAKINAK EGOKI BANATU ETA SARIA ESKURA DAITEKE

kularra Bultzatzeko Bulegoak sustatu du, Ecoembes, Ecovidrio eta Produktu sortzailearen Erantzukizun Hedatuko Sistema Kolektiboen (Ambilamp, Ecotic, ERP, Ecolec, Ecoasimelec, Ecofímica y Ecolum), laguntzarekin. Jolasaren sorkuntzan Nafarroako Ingurumen Kudeaketa elkarte publikoak laguntza teknikoa eskaini du.

Eta aplikazioa

Birziklapenaren Zentro Birtuala, Birziklatzeko zaleak, halakoxeak gara Nafarroan kanpainaren barne dago eta BirziklApp aplikazioaren osagarria da. Hura indartu nahi du. Haren bidez edukiontzi bakoitzean zein hondakin mota bota behar diren jakin daiteke. Hau da, hiritarrek birziklatzerakoan dituzten zalantzak argitzea du helburu. Duela sei

urte martxan jarritako BirziklApp aplikazioa berriki eguneratu dute, produktu eta edukiontzi berriak gehituz; horrela erabiltzaileendako praktikotasuna hobetu dute.

Birziklatze zentro birtualaren egutegia

Abenduak 23, osteguna
• 16:30-20:00
Altsasuko lortia Kultur gunean.

Abenduak 27, astelehena
• 16:30-20:30
Etxarri Aranzako liburutegian.

Abenduak 28 eta 29, asteartea eta asteazkena
• 16:30-20:00
Iruztungo liburutegian.

Turismo helmuga iraunkorrek bultzatzea helburu duen plana

Nafarroako lehen turismo helmugen jasangarritasun plana 2022 eta 2024 artean garatuko da 21 milioirekin

SAKANA

Nafarroako Turismo Kontseiluan aurkeztu zuen Maitena Ezkutarri Artieda turismo zuzendari nagusiak lehen turismo helmugen jasangarritasun plana. Foru administrazioaren plan horren helburua da "ingurumenaren, gizartearen, ekonomiaren eta lurraldearen iraunkortasunean oinarritutako eredu baterantz eraldatzea, baita eraldaketa digitaleko eta turismo baliabideen, azpiegituren eta produktuen kudeaketan lehiakortasuna hobetzeko prozesuak bultzatzea ere, lurralde osoan enplegu eta jarduerara aukerak sortzeko". Planaren bidez, foru gobernuak "Nafarroa Europa mailako turismo jasangarriaren erreferente bihurtu" nahi du.

Plana 2022 eta 2024 artean garatuko da Europako Next Generation berreskuratzeko funtsetatik heldu diren 21,97 milioi euroekin. Diruaren erdia Sakana barne hartzen duen Landako Nafarroa izeneko helmugen arteko Kohesio Ekintzen Planetara bideratuko da. Planak gobernuak kudeatzen ditu eta 10,9 milioiko balioa duten zazpi jarduerara aurreikusi ditu: bizi-

kleta azpiegitura sortzea eta natur guneak babestea, trantsizio berdearen ardatzaren barruan; energia eraginkortasuna bultzatzea sistema turistikoan; marketinean eta adimen turistikoan digitalizazioa sustatzeko bi jarduerak, eta beste bi, turismo establezimenduen kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko.

Bestalde, Xacobeo helmugako Jasangarritasun Nazio Planean parte hartzen du Nafarroak *Bost ibilbide mila bide* ekintzaren bidez. Nafarroan Santiagora joateko bost ibilbide daude: Frantziarra, Luzaide eta Orreagatik barnakoa; Somportetik Zangozara jotzen duena; Baztangoa; Ebrokoka eta Sakanakoa (Asturiasko bidea). Gobernuak haien arteko kohesio handiagoa sortu nahi du, eta ibilbideetan erromesen, bisitarien eta egoiliarren esperientzia hobetzeko Gainera, Nafarroako bidea eta bere ibilbideak produktu garakide bihurtu nahi ditu, natura, kultura, materia gabeko ondareak oinarri dituen askotariko proiektu turistiko bat eguneratuz. Eta, aldi berean, nazioarteko bihurtuz, gizarte, ingurumen eta ekonomian iraunkorra izanen dena.





Sarearen aurkezpenean tortura bizi izandako hainbat elkartu ziren. EKINKLIK.ORG

Tortura eta tratu txar lekukotzak jasotzen hasi dira

Tortura "sufrimendu isildua, estigmatizatua eta ahanzturara kondenatua" izan dela salatu dute

SAKANA

Segurtasun indarrek eragindako tratu txarrak edo tortura bizi izan duten nafarrek osatu dute Nafarroako Torturatuen Sarea. Gaztigatu zutenek, "Nafarroan torturaren gaitza 80 herrik baino gehiagok bizi izan dute. Herri horietan gutxienez tortura kasu edo salaketa bat dago ikeritu, aitortu eta erreparatu gabe". Hilaren 11n egin zuen aurkezpenean gaineratu zutenek, "1961 eta 2012 artean oinaze fisiko edota psikologikoko mila kasu inguru daude Nafarroan".

Torturaren "inpunitatea" salatu zuten, "torturaren errealtatea ukatuz edo kuarteletan eta polizia etxeetan gertatutakoaren ebidentzia argiak zirelarik, erakundeetako zenbait arduradunek, hainbat alderdi politikok eta komunikabide jakin batzuek beste alde batera begiratu" dutela salatu zuten. "Isiltasun hori

gu kriminalizatzeko eta horrela zigor bikoitza ezartzeko arrazoia ere izan da".

Sarearen helburua da, batetik, "torturaren praktika sistematikoaren onarpen ofiziala eta erreparazioa lortzea". Beste helburu bat baita "Nafarroan torturatu eta tratu txarrak jasan dituzten ehunka pertsonen aho-etsa ematea, eta baita gure artean zaintzeko ere". Bozgoragailu lana egin nahi dute. Eta lehen eginkizun gisa torturen eta tratu txarren kopuruari buruzko errolda ahalik eta zabalena eta zehatzena egingen du sareak. Horretan hasi ziren ostegunean. Etxarriko kultur etxean inprimakiak banatuko dituzte abenduak 23, 30 eta ilbeltzak 6, 13, 20, 27 (ostegunak), 19:30etik 21:00era. Eta Altsasuko Kukuerreka elkartearen abenduak 30 eta ilbeltzak 13, 27 (ostegunak), 19:30etik 21:00era.

'Mar Menor Bizirik' argazki erakusketa lortian

Abenduaren 28tik ilbeltzaren 9ra arte, 10:00etatik 13:00etara; 10etik 14ra, arratsalde

ALTSASU

Murtzian dagoen Mar Menor aintzira "Espainiako ingurumen atentatu handienetako bat jasaten ari da, eta dagoeneko 'eko-zidio krimena' aipatzen da". Hala uste du Mar Menor herri plataformak, Murtziako Unibertsitate Publikoko kideek, talde ekologistek eta herritarrek osatzen dutenak. Eta kideek gaineratu dutenez, "erasoak bereziki agerian geratu dira 2016 eta 2019ko eutrofizazio gertakariekin, aintzira mantu berde batez estali baitzuten, zopa berdea, eta hondartzak hilzorian edo hildako milaka arrainez erein zituzten".

Europako aintzira gazi handienak bizi duen egoera larriaz kezkatuta herri ekimen legegilea sustatu du plataformak. Haren bidez Diputatuen Kongresuari eskatu diote aintzirak eta bere arroak Nortasun Juridikoa izan dezala eta, horrela, babesteko eskubide propioak izan ditzala. Erakusketa hilaren 28an, 12:00etan, mustutzeko Rakel Meyers eta Arkaitz Saiz izanen dira. Ilbeltzaren 13an, 18:30ean hango ozeanografikoko Mentxu Rodríguez Puente langilea eta Murtziako Unibertsitateko Teresa Vicente Gimenezek hitzaldia emanen dute.



Moztutako enborretan pintaketak agertu ziren lastailean.

Basoixiko "mozketa masiboa gelditzeko" arte jolasa

Igandean, 11:00etan, artelanak sortuko dituzte Gure Etxean, eta, 15:00etan, Basoixin jarriko dituzte

ALTSASU

Basoixi bizirik ekimenak Altsasuko basoko dermio horretan aurreikusitako amerikar haritzen eta pinuen "mozketa masiboa gelditzeko" eskatu du, "gaia garrantzitsua da komunitate osoarendako ondorio erabakigarriak dituelako". Behin geldituta, zuhaitzen mozketei buruzko "eztabaida hasi eta horri buruzko herri kontsulta egitea" eskatu du. Basoixi bizirik ekimeneko kideen iritziz, "amerikar haritzak mozte mendiarendako onuragarria dela suposatuta, badaude basoa pixkanaka birsortzen duten modu organikoak".

Udalaren baso planean jasotakoari segituz, aurten Basoixiko bi sailetako haritz amerikarrak moztu dira. Basoixi bizirik taldeak azaldu duenez, "dirudienez amerikar haritz eta pinu guztiak erabat kentzea jasotzen du udal planak. Horrek

27 hektareako baso landareria ezabatuko luke. Aditu batzuen arabera, dena ondo badoa, gutxienez 25 urte itxaron beharko genituzke zuhaitzak ikusten hasteko". Kritiko dira "arraseko" mozketekin, "prozedura zorrotz eta behin betiko" horrek "oihanpean eta gainerako ekosisteman izan ditzakeen ondorio kaltegarriak kontuan hartzen ez dituelako".

Herritik gertu dagoen parajea da Basoixi. Jendeak han paseatzen du, "leku enblematikoa da jende askorendako. Zuhaitzen hostozabaltasunak, edertasunak, hurbiltasunak eta irisgarritasunak naturaz gozatzeko leku ezin hobea egiten dute". Ekimeneko kideek gaztigatu dutenez, "izaki bizidun askoren bizirapena haien arteko loturen arabera da, zuhaitz zaharrenen gazteei eskaintzen dieten babesa ezinbestekoa zaie hazteko".

KS-k "biolentzia kapitalistari" aurre egitera deitu du

Igandean, 18:00etan, Altsasuko Foru plazatik manifestazioa abiatuko da

SAKANA

Sakanako Kontseilu Sozialistak "proletalgoak egunero bere haragitan jasaten duen biolentzia kapitalista" salatuko du igandean. Nabarmendu duenez, "proletalgoa guztiz zaurgarri gauden

testuinguruan, antolakuntzaren bitartez soilik egingo diogu aurre biolentzia kapitalistari". Horren adibide gisa jarri dituzte zaintzan aritzen diren emakumezkoen "lan baldintza penagarriak", espetxeetako egoera

lazarria, gosea, soldatapeko lanean hil egiten diren pertsonak (60), erailketa matxistak (5), LGTB+ kolektiboko kide izateagatik jasan behar den jazarpena, bidean bizi galdu duten migranteak (gutxienez 7), etxegabetzeak (1000)...

KSko kideen iritziz, "ezinbestekoa da horiek guztiak modu isolatuan ez ulertzea. Ez dira gehiegikeria edo zorte txarra. Gizarte kapitalistak martxan jarraitu bitartean ez dira desagertuko biolentzia kapitalistaren



Maiatzaren 1eko manifestazioa.

espresioak. Biolentzia kapitalista bortizkeria estrukturala baita". Gaineratu dutenez, "krisi honetan, pobretze orokortuaren testuinguruan, aipatutako biolentziak gora egiten du". KSkoendako horren adierazle dira: argindarraren prezioaren igoera, COVID-19 gestioagatik atzeratutako tratamenduak, kontrol sozialaren areagotzea, langabeziaren igoera, presoak bisitarik gabe egondako hilabete guztiak edo pandemian gazteen suizidio saiakerak %250 igotzea.

Euskal Herri euskaldunera jauzi egiteko

Euskal Herrian Euskarazen ikusmira

HELBURUAK

Euskarak egiten gaitu euskaldun, eta, era berean, euskarak egiten gaitu Euskal Herri; hots, herri nortasuna ematen digu. Euskararen herriak Euskal Herria berreuskalduntzeko eskubidea eta gogoia du, euskaldunon hiztun-komunitatearen etorkizuna ziurtatzeko bide bakarra baita.

Estatu espainiarra eta frantsesa mendez mende saiatu dira Euskal Herria kolonizatzen, eta, horretarako, berezko hizkuntza ordezkatzeko ahaleginak egin dituzte. Izan ere, euskaldunon hiztun-komunitatea berregituratu nahi badugu, ezinbestekoa da euskararen erabilera lehentasunezkoa izatea; hau da, bai ahozko erabileran, bai eremu funtzional eta geografiko guztietan euskararen erabilera hegemoniko bilakatzea.

OINARRIAK

EHEk aldarrikatzen du kolonizazio-mekanismoen ondorioz euskaldunon hiztun-komunitatea kolektibo zapaldua eta zatitua dela, munduko herrialde kolonizatuak bezalaxe. Zapalketa hori, interseksionalitatearen ikuspegitik, estatu linguiziden Europaren eta patriarkatu kapitalistaren ondorioa da, eta ukazioa, bazterkeria eta umiliazioa eragiten ditu euskal hiztunengan.

“Elebitasun sozial orekatua” euskara galbiderantz darman diglosia-egoeraren mozorroa besterik ez da. Diglosia-egoeraren oinarrian dagoen hizkuntza-asimilazioari aurre egiteko, jauzia egin beharra antzematen du EHEk:

- Batetik, Euskal Herriko biztanleak deskolonizazio beharra aldarrikatzen du, euskaldun eta burujabe, mendeko hizkuntza praktika gainditu eta euskaraz bizitzaren aldeko hautua egin dezagun.

- Bestetik, Euskal Herriaren independentzia eskatzen du, euskararen lehentasunezko estatusa eraikitze, eta normalizazio osoa erdiesteko beharrezko duen hizkuntza politika burujabea bultzatu ahal izateko.

EHEren ustez, diglosia-egoera zinez gainditu ahal izateko, berreuskalduntze prozesuak integrala behar du izan. Euskal Herriko biztanle guzti-guztiak euskaldunak izatea

ezinbestekoa da; izan ere, euskaraz bizi nahi dugun euskaldunoi edota euskaldun izan gabe euskara ikasi nahi dutenei urratzen zaizkigu hizkuntza eskubideak etengabe, erdarak inposatu nahi dituztenen mesedetan. Bertako administrazio eta erakunde publikoek, hizkuntza-politika eraginkorren bidez, hiritar euskaldunak sortzeko ardura dute. Horri lotuta, ez da aski euskararen transmisio linguistiko hutsa egitearekin. EHEk, euskararen eza-gutzaz gain, euskararekiko atxikimendua sustatu beharra aldarrikatzen du, jarrera euskaltzalea ere transmititu beharra, alegia.

Euskarak euskal herritarren hizkuntza komuna izan behar du. Euskal Herria gero eta anitzagoa da, bai kulturari, bai hizkuntzari dagokionez, eta, testuinguru horretan, euskara euskal herritar guztion kohesiorako eta bizi-kidetzarako hizkuntza izatea sustatuko du EHEk. Hala, hizkuntzen arteko harreman-eredu berri baten alde egiten du, zeinetan hizkuntza-aniztasun hori errespetatu eta zainduko den, hizkuntza komuna euskara izanik.

IZAERA

EHE solidarioa da, zapalduak izatearen kontzientziatik abiatuta, nolabaiteko zapalketa jasaten duen norbanako eta kolektibo ororekin. Zapalduon arteko elkartasuna eta aliantzak ezinbestekoak dira pertsona guztien oinarritzeko eskubide guztiak bermatuak izan daitezen, parekidetasunean eta elkar-errespetuan oinarritutako harremanak eraikitze, baita ama lurrarekiko errespetuan oinarritutakoak ere.

Pairatzen dugun diglosia-egoeran euskaldunok egin dezakegun ekintzarik desobedienteena ukazio eta bazterkeria guztien gainetik euskaraz bizitzea da. Horretarako, ezinbesteko deritza euskararen aldeko borrokan euskaltzaleak ahalduentzeari eta desobedientzia-jarrerak elikatzeari.

PARTE HARTZEA

EHEren ekimenetan parte hartzeko aski da manifestu honen puntuekin ados egotea. Eta EHEren proiektuarekin bat egin eta beronen egitasmoen aldeko ekarpena egiten duen pertsona oro izan daiteke EHEren komunitatearen parte.

www.ehe.eus

Euskaraz bizi nahi dugulako, egin zaitez BAZKIDE!

Euskal Herrian Euskaraz 



Etxeetara banatu aurretik 'Sakanako Gida'-ren aleak kutxetan sartuta.

Establezimenduen eta zerbitzuen berri izateko

GUAIXE FUNDAZIOAREN 'Sakanako Gida' ibarreko 8.500 etxebizitzetako postontzietan banatu da egun hauetan. Gremioen eskaintza zabalaren berri jasotzen du, baita haiekin harremanetan jartzeko modua ere. 'www.guaixe.eus/gida' eskura dago

SAKANA

Bertakoari balioa aitortzeko, ibarreko zerbitzu eta establezimenduekin harremanak estutu eta bultzada emateko helburuarekin iritsi da Sakanako Gida etxe guztietako postontzietara. Gida osatu eta eguneratua. COVID-19 gaitzak eragindako krisiak agerian utzi du tokiko merkataritza eta zerbitzuen beharra, haiek baitira herrien bizia eta indarra. Herritarrek ez dute inoiz hainbeste baloratu tokikoa, gertukoa. Herrietako saltoki, taberna, elkarte, enpresa eta zerbitzu publikoen gaineko informazioa nahiz telefono interesgarriak aurki daitezke gidan. Erabiltzaileei zerbitzurik onena eskaintzea da helburua.

Zortzigarren aldia da GUAIXE FUNDAZIOAK ibarreko merkataritza gida argitaratu duena. Sakanako Gida ibarraren tokiko ekonomiaren bizkar hezurra diren zerbitzu eta establezimenduek osatzen dute. Guztien artean makina bat esparru hartzen

dituzte, sakandarrendako eta bisitariendako eskaintza zabala osatuz. Egunero negozioen atak zabalduz, haiek dira sakandarrak kalera atera eta bisitariak erakarri, eta Sakanako herriei bizia ematen dietenak.

Bi formatu

Sakandarrek etxean paperean jaso dute gida. Negozioen berri izateaz aparte, jendeak eskura du egunerokoan baliagarria zaion informazio praktikoa: osasun etxe, udal edo bestelako erakundeentako telefonoak. Gainera, Sakanako Gidan hainbat herritako mapak daude, eta haietan establezimenduak non daude ikusten da. Etxean urte guztian erabilgarri izanen da gida.

HURRENGO EDIZIOAN EDO INTERNETEN SARTZEKO:
661 523 245 EDO
PUBLI@GUAIXE.EUS

Etzetik kanpo ere gida kontsultatzeko aukera eskaintzen du GUAIXE FUNDAZIOAK gida digitalaren bidez. Hara www.guaixe.eus web orriaren bidez sartzen da, eta hala egiten duen erabiltzaileak gida erabilerraza eta zuzena opatuko du. Hiru klik eginez behar duen telefonora hots egiteko, e-posta kontsultatzeko, haren webgunean sartzeko edota helbide zehatza jakiteko aukera izanen du erabiltzaileak. Sakandarren bilaketak errazteko gremio edo herriaren araberrako bilaketak egiteko aukera ere dago. Gida digitala Sakanarako eta mundurako erakuslelhoa da.

Sakanako ekonomiaren oinarri garrantzitsua dira merkataritza eta zerbitzuak. Haietan erosi edo zerbitzuak kontratatzea errazteko aukera ematen du BelexeGuaixe txartelak. 2012tik fundazioaren babesle diren 1.400 sakandarrei ibarreko 90 bat establezimenduetan abantailak eskaintzen dizkie.



Agorrilean egindako 'Eskubideen basoa'. URDIAINGO LIBURUTEGIA

Jolasaren bidez giza eskubideetara iristeko

Urdiaingo liburutegiak abenduaren 29an, 18:00etan, haurrei zuzendutako euskarazko tailerra hartuko du

URDIAIN

Liburutegira joan diren haurrek elkarrekin misio bat bete beharko dute. Horretarako, probak gainditu eta pistak argitu beharko dituzte. Horretan datza heldu den astezkenean Urdiaingo liburutegiak hartuko duen *Eskubide osoa dut* tailerra. Haren bidez haurrak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalera hurbilduko dira. Historian zehar eta gaur egun giza eskubideen defentsan diharduten hainbat kontinentetako erreferentziazko gizarte mugimendu eta pertsonak ezagutzeko aukera izanen duten jokoaren bidez. Bakeola fundación EDEK dinamizatutako du eta bi orduko iraupena du tailerrak.

Urdiainen ez da arrotza "Bakearen eta bizikidetzaren aldeko liburutegiak" programa. Haren baitan lau tailer daude eta udan *Esku irekiak*, *hau es-*

kubide bat da! tailerra izan zen Urdiainen, 5 eta 8 urte arteko haurrei zuzenduta. Orduan Inma Gurreak, Izaskun Mujikak eta Marisa Serranok dinamizatu zuten saioa, ahozko narrazioa eta jarduera praktikoa, sortzaile eta artistikoa uztartu zuena. Hainbat ipuinen bidez, bi kontzeptu landu zituzten: eskubideen unibertsaltasuna eta eskubide orok dakarren betebeharra. Ahozko narrazioaren ondoren *Eskubideen basoa* egin zuten. Haren emaitza hainbat esku irekiko basoa izan zen, eskubideak pertsona guztien artean eta pertsona guztionak direla gogorarazten duena. Emaitza liburutegian dago ikusgai.

Nafarroako Gobernuako Liburutegi Zerbitzuak eta Bizikidetzak eta Giza Eskubideen Zerbitzuak elkarlanean sustatzen dute "Bakearen eta bizikidetzaren aldeko liburutegiak" programa.

Enkante bidez gobernuak Iturmendin partzela salduko du

Nafarroako Ogasunak enbargatutako makina bat ondasun higiezin enkante bidez saltzea erabaki du. Bat Iturmendin dago, 1.707 zenbakidun finka. 1.521 m² ditu. Haren tasazio balioa 46.537,54 eurokoa da. Enkantean parte hartu nahi dutenek 868,37 euro jarri beharko dituzte aurretik. Enkante balioa 17.367,30 eurotan ezarri du.

Hydrorena foru intereseko inbertsioztat jo dute

Nafarroako Gobernuak Irurtzongo Hydroren enpresa proiektua foru intereseko inbertsioztat jotzea erabaki zuen atzo. Merkaturako hainbat sektoretarako aluminiozko aleazio profilak egiten dituzte estrusioaren teknikaren bidez. 9 milioi eurotik gorako inbertsioa egingen du lantegia teknologikoki gaitzeko. 10 lanpostu berri sortuko dira.

Txirinbuloko langileek udal lan hitzarmena nahi dute

Aldarrikapen hori egiteko bitan bi orduko lan uzteak egin dituzte eta ilbeltzaren 26rako greba iragarri dute

ALTSASU

Udal haur eskolako langileek hilaren 10ean eta asteartean bina orduko lanuzteak egin zituzten. Horien bidez haiei Altsasuko Udalaren lan hitzarmena ezartzea nahi dute, "lan baldintza duinak" izateko. Horrela, langileak bizi duten "prekarietatearekin" bukatu nahi lukete. Aldarrikapen "zaharra" da, gaur egun estatuko lan hitzarmenaren barruan baitaude, "soldata lotsagarriak eta baldintza latzak dituen". Horrekin batera, langileek haur eskolaren baldintzak hobetzea eskatu dute, esaterako: eraikinaren mantenu egokia egitea; materialak erosteko duten partida ekonomikoa handitzea "oso eskasa baita"; patioa eraberritzea eta ikastaroetan ikasitakoa praktikan jartzeko baliabideak.

Txirinbuloko gurasoei bidalitako gutunean Altsasuko Udalak jakinarazi duenez, "heziketa zikloa denez, Hezkuntza Departamentuak hobetu behar ditu udal haur eskoletako langileen baldintzak. Horiek Nafarroako administrazio publikoetako gainerako langileen baldintzekin parekatu behar ditu". Hori egin

ondoren udalaren ustez departamentuak egin beharko lukeena da "haur eskolak zuzenean kudeatzen dituzten udalen finantziarioa hobetu". Bitartean Altsasuko Udalak, zenbait alderditan, langileen soldata baldintzak hobetu dituela jakinarazi du: urteko igoerak, familia laguntza eta abar. Nafarroako Gobernuak heldu den ikasturterako aldaketak iragarri ditu. Hori kontuan hartuta, "udalaren hitzarmen kolektibo berriaren negoziazioaren esparruan, alderdi horretan aldaketak egin ahal izango dira", jakinarazi du.

Udalak azaldu duenez, "hau eskolaren proiektua ikastetxean planteatutako beharrianak kontuan hartuta idatzi eta onartu zen, eta, jakina, departamentuaren nahitaezko baimena izanda". Horren barruan sartu du patioa, eta han ere hobekuntzak egin direla gatzigatu du. Udalak azaldu du administrazioaren funtzionamenduak berak mugak jartzen dituela gastua egiterakoan eta zerbitzu guztiei aplikagarria dela. Bestetik, haur eskolan hobekuntzak egiteko dirulaguntza deialdiak baliatu dituela nabarmendu du udalak.

Gertuago dago Altzania garbiagoa

Ibarrea industrialdean saneamendu sarea egiteko lanen hirugarren eta azken fasea egiten ari dira. Lanek 154.482,20 euroko (BEZ kanpo) aurrekontua dute. Saneamendu sarea egiteak 741.893,84 euroko inbertsioa eskatu dio udalari

ALTSASU

Lacunza Hermanos SM enpresako langileak azaro akaberatik ari dira Ibarrean industrialdean lanean. Ibarrea industrialdeko enpresetako eta etxebizitzetako hondakin urak biltzeko saneamendu sarearen hirugarren eta azken fasea egiten ari dira. Lanak otsailaren 25erako despeditu behar dituzte. Eta haiek bukatuta industrialdeak ur beltzak zuzenean Altzania ibaira isurtzeari utziko dio. Eta, ondorioz, Altsasuko Udalak Ebroko Ur Konfederakundeari isuriengatik urtero 1.345,2 euroko isuna pagatzeari utziko dio.

Martxan diren lanek 154.482,20 euroko (BEZ kanpo) kostua dute. Haiek egiteko Altsasuko Udalak 88.461,99 euroko dirulaguntza jaso du. Aurretik egindako bi faseak lotzean datza hirugarren fasea. Horretarako, 130 metroko luzeran hodiak jarri behar dira. Horieta 53 metro trenbide azpian eginen dira. Lehenik 1,2 metroko



Saneamendu sareko lanak.

altzairuzko hodia eta haren barruan PVC-zko 31,5 cm-ko diametroa duen hodia sartuko dute.

2019ean Ibarreako lantegietako eta etxebizitzetako ur zikinak industrialdean jarri zen sare nagusiarekin lotu ziren. 2020an, berriz, Ibarmusuko ur beltzak jasotzeko eta haiek Geltoki auzoko hodi nagusira eramateko lanak egin ziren. Lanak egiteko, guztira 741.893,84 euroko inbertsioa

egin du Altsasuko Udalak, Ibarrean saneamendu sarea jartzeko.

Aurrekontua

Lehen fasea

- **Obra:** 242.837,02 euro (BEZ barne)
- **Proiektua:** 14.900 euro (BEZ kanpo).
- **Obra zuzendaritza:** 9.724 euro (BEZ kanpo).

Bigarren fasea

- **Obra:** 214.826,42 euro (BEZ kanpo).
- **Obra zuzendaritza:** 9.226,86 euro (BEZ kanpo).

Hirugarren fasea

- **Obra:** 154.482,20 euro (BEZ kanpo).
- **Proiektua eta obra zuzendaritza:** 11.233,86 euro (BEZ barne).

Gasoleo A ibilgailuentzat
Gasoleo B nekazaritzarako
eta kalefakziorako

www.iparoil.com



IPAR OIL

GASOLEO BANAKETA

Langraiz Oka Los Llanos industriagunea 01230 Langraiz Oka (Araba) 945 371358 • 648 250975	Santurtzi Aparkabisa industriagunea 48980 Santurtzi (Bizkaia) 945 371358 • 686 525761	Urnieta Erratzu industriagunea - 201 20130 Urnieta (Gipuzkoa) 943 330311 • 646 716256
--	--	--



Unanuarrek etxebizitzak egiteko hainbat auzolan egin dituzte. ARTXIBOA

Kontzejuko bi etxebizitzak alokatuta daude

Azaroaz geroztik ari dira han bizitzen. Kontzejuk autoendako aparkalekua egiteko toki bila segitzen du

UNANU

Elkartearen gaineko solairuan Unanuko Kontzejuk bi etxebizitza egin ditu, eta azaroaren lehen egunetik han bizitzen ari dira. Jesus Mari Balda Mercero kontzeju buruak jakinarazi duenez lanen aurrekontua 80.000 euro ingurukoa izan da. Bestetik, eraikitzaile batek hamar bat etxe jasotzeko tramitazioa hasi du.

Kontzejuk 2022ko aurrekontua onartu du. 106.600 euroko diru sarrerak eta 65.020 euroko gastuak aurreikusi dituzte. Baldak azaldu duenez, Herri Berritze planaren bidez Ergoienako Udalak emandako dirua erabiliko dute batez ere inbertsioak egiteko. Urte hasieran frontoian argia jarri nahi luke kontzejuk. "Argia jartzeko dirua sartu behar den tresna dago. Izorratuta dago. Jendeak dirua sartu eta argia pizten ez zenean kolpatu egiten

zuen. Eta ez du funtzionatzen. Hobe lukete tresna jo beharrean diruan bueltan eskatzea", azaldu du kontzeju buruak. Eta gaineratu du frontoian oraindik ez dutela LED argirik jarri. Ordea, mediku kontsultategiko leihoak aldatu dituzte.

Autoa eta Beriain

Mendiak erakarrira jende asko bukatzen du Unanun eta ibilgailuak nonnahi aparkatzen dituzte eta trafiko arazoak sortzen dira herrian. Horregatik, kontzejuk aparkaleku bat egin nahi du. "Herri gainean kontzejuk lursaila du, baina hara joateko herritik pasa beharko lukete ibilgailuek eta ez dugu halakorik nahi". Kontzejua herri inguruan begira ari da.

Azkenik, Beriainerantz igotzen den pistaren lehen zatia berritu zuen kontzejuk udaberrian, 2022an ez dute han lanik egingen.

Herri berritze plana martxan da

Ergoienako Udalaren eta hiru kontzejuen arteko harremanak dinamizatzeko eta ibarreko azpiegiturak, zerbitzuak eta bizikidetzak hobetzeko proiektuak garatu eta gauzatuko dira planaren bidez. Lan taldea osatu dute jarraipena egiteko

ERGOIENA

Udalak eta kontzejuek adostu duten Herri Berritze planarekin zuzendu nahi den egoera hurrengo da. Alde batetik, Dorrao, Unanu eta Lizarragako kontzejuek arazoak dituzte beraien herrietan azpiegiturak hobetu edo egiteko inbertsioak egiteko. Ez dute ez baliabide teknikorik ezta ekonomikorik ere. Bestetik, Ergoienako Udalak baliabide tekniko eta ekonomikoak ditu ibarrean proiektuak garatzeko, baina udalak ez du herrietako ekipamendu edo azpiegiturretan eskumenik, geroz, udalak zuzenean ezin du inbertsiorik egin Lizarragan, Dorraon eta Unanun. Horren



Ergoienako Eguna hiru herrien topalekua izan da. ARTXIBOA

Lizarragako Kontzejua

Unai Navarro Aristorena kontzejuko presidenteak azaldu duenez, medikuarena zen etxeko lehen solairuan bi apartamentu egiteko ideiarekin segitzen dute. Bargagain gaineko solairu guztia auzolanean hustu ondoren, han 60 metro karratuko bi apartamentu eraikitzeko dirulaguntzen zain jarraitzen du kontzejuk. Hura lortu eta



kisugileek, iturginek eta elektrikariek beraien lana despeditu ondoren, apartamentuak jantzi egin beharko lirake. Navarrok azaldu duenez, Ergoienako Udalak emandako 60.000 euroak apartamentuetako altzariak erosteko erabiliko dituzte. Kontzejuk bi etxebizitzak alokatzeko asmoa du.

EZ GEHIAGO ITXARON

Eraman nazazu

ESKURAGARRI

HANDIA • ERTAINA • TXIKIA

ESNE GAINA • TXOKOLATEA • KREMA

GLUTEN GABEA ESNE-GAINAREKIN

ZUREKIN 1964 GEROZTIK

Amaya

OKINDEGIA

ALTSASU

678 323 403

• Iruña Hiribidea, 48

948 468 026

Zumalakarregi Plaza,3

670 389 017

• San Juan Kalea, 50

948 562 185

• Otadiko Kristo Deuna, 19

UHARTE-ARAKIL

691 83 41 36

• Mandikoa, 3

VITORIA-GASTEIZ

• Postas, 33

945 148 368

• Arriagako Atea, 12

ETXARRI-ARANATZ

948 461 660

• Kale Nagusia, 4

OLAZTI

948 468 755

• Orreaga Kalea, 1

ARAIA

945 314 572

• Andoni Urrestarazu, 3

DOANIK eraman dezakezu

Gure instagram kontuko "Jan Errege opila" lehiaketan parte har ezazu eta doan eraman dezakezu.

@panesamayaogiak

guztiazen ondorioz, hiru kontzejuek diru gutxi dute eta ezin dute inbertsiorik egin. Eta, bitartean, Ergoienako Udalaren aurrezki kontua gizentzen joan da.

Udaleko eta kontzejuetako ordezkarien hausnarketen ondorioz, ezinbesteko jo dute lau erakundeek arteko lotura handiagoa izatea, ibarra modu eraginkorragoan kudeatzeko. Horregatik, Ergoiena osatzen duten lau toki erakundeek partaidea zarekin lan eremu bat sortu dute, eta lantalde horrek Herri Berritze planaren bidez haien arteko harremanak dinamizatu eta ibarreko azpiegiturak, zerbitzuak eta bizikidetzak hobetzeko proiektuak garatu eta gauzatu dituzte.

Helburuak

Lehenik eta behin, lau erakundeek artean zuzeneko komunikazio bideak sortu dituzte. Horrela hiru kontzejuetako kideek beste kontzejuetan zer ari diren egiten edo lantzen jakin dute. Horrela, esperientziak partekatu eta ideiak batzeko aukera izan dute. Horrela, kontzeju batean sortzen den esperientzia

edo hartzen duen eskarmentu guztia beste biek inpartekatzeko aukera izan da, eta, beraz, kontzeju batean egindako lanak gainerakoei eraginen lieke. Egiteko hori orain arte udaleko idazkariaren esku egon da. Bestetik, kontzejuen egitasmoen jakitun izanik, udalak bere urteko aurrekontuaren partida bat erabil lezake Herri Berritze planean jasotako inbertsioak egiten laguntzeko. Ekonomia laguntzaz aparte, Ergoienako Udalak laguntza tekniko eskainiko die hiru kontzejuak.

Egitasmoa indarrean jarri dute dagoeneko. Horretarako, Lizarraga, Unanu eta Dorraoko kontzejuak herrian eta dermioan dituzten beharren diagnosa egin dute herriartekin batera, eta udalari aurkeztu diote, lehen tasunak adieraziz. Udalak 2022ko aurrekontuetan plana gauzatzeko 180.000 euro aurreikusitu ditu, 60.000 euro kontzeju bakoitzarako. Kontzejuak egin beharreko lanak kudeatzeko mandatuak egin diote udalari, eta bera izan da herrietan kontzejuak eskatutako inbertsioak egin dituenak.

Unanuko Kontzejua

Jesus Mari Balda Mercero Unanuko kontzejuako presidenteak azaldu duenez planaren bidez sei lan egin nahi dituzte. "Kale Nagusian ibilgailuak aparkatzen dituzten eta arazoak izaten ditugu, batez ere asteburuetan, mendizaleak etortzen direnean. Aparkatzea debekatuta dagoela adierazten duten marra horiak margotu genituen, baina dagoeneko borratuta daude. Ez aparkatzeko adierazten duten zortzi-hamar seinale jarri nahi ditugu". Horrekin batera, argiteria publikoak txukundu nahi du kontzejuak. Izan ere, "lehendik jarritako eta ezertarako balio ez duten kable zahartu asko dago, beste batzuk txintxililik daude. Behar ez direnak kendu eta gelditzen direnak txukun utzi nahi ditugu", azaldu du Baldak.

Kontzeju buruak gaineratu duenez, plaza ere berritu nahi dute: "kontraterreno handia dago eta paretak ura izerditzen



dute. Behera jaitsi eta putzua egiten da. Ura jasotzeko lurrari jaitsiera pixka bat eman nahi diogu. Eta paretak, margotu beharrean, bistako adreilua edo jarriko dugu". Herri sarreran dago eskolak hartu zituen eraikina, egun besteak beste mediku kontsultategia hartzen duena. Eraikina margotuko du udalak. Horrekin batera, haren parean dagoen plazari eusten dion murrua, herri sarreran ezkerretara dagoena, zartatuta

dago. Hura ere konponduko dute.

Baldak jakinarazi duenez, elizaren ondoan dagoen haurrendako jolas parkean adinduendako bizpahiru aparailu jarri nahi dituzte, ariketak egin ditzaten. Hori guztiak egin ondoren dirua geldituko balitz, izorratuta dagoen Dermiotxikiko bidea konpondu nahiko luke. Bide hori Dorraora darama eta bi kontzejuak aldi berean egin nahiko lukete lana.

Dorraoko Kontzejua

Idoia Resano Igoa kontzeju buruak Herri Berritze planaren bidez lau inbertsio egitea aurreikusten dutela jakinarazi du. Alde batetik, gaur egun Itur aldea frontoian dauden argiak LED argiekin ordezkatzeko dituzte. Resanok azaldu duenez, "gaur egun pilotalekua itxita dago, dorrobarrek bakarrik erabil dezakete. Argia jartzeko ordaintzeko makina dago eta erabiltzaile batzuk ez pagatzeagatik hautsi egiten zuten. Giltza auzoan dago nahi dutenek erabiltzeko". Bestalde, frontoian bertan



kirola praktikatzeko tresnekin armairu bat jartzeko asmoa dutela azaldu du: "komunitate kaxoi horretan erraketak, palak eta beste egonen dira. Espero dugu erabilera arduratsua egingen dela".

Pilotalekuaren eta elkartearen artean berdegunea dago. Eguraldi onarekin dorrobarrak han biltzen dira. Horregatik, Dorraoko Kontzejuak han askaldegia edo merenderoa jarriko du. Bi barbakoa eta bost mahai jarriko ditu, dagozkion aukiekin. Frontoiko sarreraren ondoan, bestalde, haurrendako jolas parkea dago. Resanok azaldu duenez hura berrituko dute. Batetik, haurrendako modulu berria jarriko dute, bestetik, adinduek ariketa egiteko modulua jarriko dute eta, azkenik, parkea handitu eta haizea kentzeko plakak jarriko dituzte.

Hori guztia egin ondoren 60.000 eurotik dirua geldituko balitz, Dorraoko Kontzejuaren asmoa pistak konpontzea litzateke. Resanok azaldu duenez, hiru dira konpontzeko begiz jota dituzten bideak. Bata frontoia eta eliza lotzen dituen Igokoko bidea da, hondakin bilketako kamioiek erabiltzen dutena. Bestea dermioko bidea da, Unanuko beste bide batekin at egiten duena. "Elizatik abiatzen den bide hori jendeak paseatzeko erabiltzen du. Eta abeltzainek ere. Nahiko hondatuta dago". Azkena Korosoko bidea da, herritik Berriain magalean gora egiten duena.


GUAIXE
661 523 245

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA
Urte berri on!

Telefono berria:
948 562 348 • Altsasu

Txalaparta

Urte berri on!
Taberna
948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU


PORTUKO

Urte berri on!
Gabonetan gozotegia martxan
Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranz: 948 460 988

"Oraindik bizirik dauden hizkeren azterketa da"

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON IKERLARIA

Euskara Zerbitzuak 'Sakanako euskal hizkerak (XXI. Mendearen ezkaratzean)' liburua argitaratu du. Interesa duten herritarren artean banatuko dira aleak

Eneida CM eta Alfredo AI ETXARRI A Etxarri Aranatz hilaren 15ean aurkeztu zuen Jose Luis Erdozia Mauleonek bere azken liburua. **Nolaz liburu hau?**

Euskara Zerbitzutik galdetu zidan zerbait egiteko planen bat ba ote nuen. Hainbat gauza neuzkan eta haien ikuspegitik hau egokiena iruditu zitzaien. Oraindik bizirik dauden hizkeren azterketa da, beti ere, XX. mendearen hasieran. Liburuaren helburua da ikastetxeetan eta tokietan jakitea zer berezitasun dauzkan hemengo euskarak eta tokiak.

Nola dago banatuta liburua?

Sei atal dira. Lehendabizikoa Sakana bera zer den azaldu, eta historia pixka bat egin dut. Beti agertzen zaizkigu Arakil, Aranatz eta Burunda toki izenak. Sakana izena duela 35 urte gutxi gorabehera sortu zen: mankomunitatea sortu zenean izen bat eman behar zitzaion eta orduan gehien erabiltzen zena erdaraz zen: Barranca. Hura euskaratu

eta Sakana hartu zen. Hitz hori toponimian, generiko moduan, asko erabiltzen da. Sakanako euskarari buruz egon diren aipamenak sartu ditut ere.

Bigarren atalean zer landu duzu?

Arakilek, Aranatzek eta Burundak zein berezitasun dauzkan azaltzen da. Bakoitzaren bost ezaugarri aztertu ditut: bokalak eta kontsonanteak nola jokatzaren duten, aditzak, joskerak eta lexikoa. Azken horretan desberdintasun dezente daude. Batez ere Burunda eta gainontzekoen artean. Horregatik, azala. Etxarri Aranatz eta Bakaiku arteko Oporoko presa zaharra da. Lexiko aldetik zer desberdintasun dauden islatzen du. Burundan, goian, dauden hitzak Arakilen eta Aranatzaren, behean, beste modu batera ematen dira: galzarbe-besape, aulubi-marrubi, odolki-tripota, korrika-lasterka...

Dialektologiari heldu diozu hirugarren atalean.

Interesgarriena dialektologia aztertzen dutenendako. Haren


ikuspegitik hemengo hizkerak aztertu dituztenen artean adostasuna dagoen edo ez azaltzen da. Horretarako azterketa egin dut. Lehenik, Sakanako hizkerak aztertzeko zer erraztasun ditugun: hiltun oso trebeak dauzagu, baina ez denean. Dialektologoak Sakanako euskarak aztertu dituztenean zertan oinarritu diren eta zer utzi diguten ere jaso dut. Esaterako, Louis Lucien Bonapartek bati eskatu zion doktrina zati bat Etxarriko euskarari jartzeko, baina Gipuzkoakoan jarri zion. Eta, berriz, Uhartaren egin zuenak oso ongi egin zuen. Azken horrek askoz hobe islatzen du Etxarriko hizkera Etxarriko itzulpenak baino. Horrek esan nahi du Uharteko eta Etxarriko euskara nahiko antzekoak zirela. Gero hiru eremuetako hizkerak alderatu ditut.

Arakilgo hizkerarekin eztabaida gehiago dago. Oso lekuko gutxi izan ditugunez, gauza gehienak idatziak dira, transkripzioak-eta, zaila da benetan jakitea nola izan zitekeen. Baina dauzkagun datuekin, niretako, Aranazkoaren oso antzekoa da, %70ean edo. Beste batek Gulina eta Imotz ingurukoekin lotzen du. Horregatik Imozko euskararekin kontrastatu eta niri ere ateratzen zait gehiago hemengo dela.

Gauza kuriozkoa da. Arakilgo euskararen lekuko bezala Murgindueta asko erabiltzen da. Jauntxo baten jabegoa izan zen. Hara familiak lanera eramaten zituen, baina beti ez ziren hemengoak. Horko hizkera erabiltzea hemengo oinarri bezala...

Eta ateratzen dudana ondorioa da, ia inork ez zalanztan jartzen duena: Burundako hizkerak zubi lanak egiten dituela Bizkaiko, eta Arabakoa zena, Gipuzkoako eta Nafarroakoaren artean. Denetatik pixka bat du. Askok dauka, egia da, mendebaldekoa.

Berriz, Arakil eta Aranatz, hainbeste ezaugarri komun ikus-



Jose Luis Erdozia Mauleon liburuaren aurkezpenean. EUSKARA ZERBITZUA

ten dizkiet hizkera bat osatzen dutela. Dugun datuekin %100ean ez, baina %70ean bai. Ez dugu joan beharrik Gulina aldera.

Sakanako herri-hizkeren etorkizunaz zer esan dezakezu?

Laugarren atala da, batukiarena. Nik 65 urte dauzkat eta ikusten dut 40 urte dauzkatenak dagoeneko ez dutela hitz egiten nik hitz egiten dudana bezala. Hor gauza asko daude. Gaur egungo 40 urtetik beherako gazte gehienak D ereduan ikasi dute. Eta hortik gorakoak, berriz, erdaraz. Gazteak etxean ikasitakoa erabiltzen dute, baina beti batuko puntu bat jartzen diote. Hori ezinbestekoa da, seinale ona da. Badakigu batua geldi-geldi gailenduko dela, eta ezarian-ezarian bertako hizkerak joanen dira pixka bat itzaltzen. Baina, garaiz gaude, oraindik, erabat itzali baino lehen hizkerek batuari gauzak emateko. Bereziki lexikoan eta morfologian. Esaterako, gazte bati ez diozu entzungo: *hori lagunendako da, lagunentzat* esaten dute. -entzat, hemen sekula ez duguna erabili. Eta halako adibide dexente. Eta kontutuan hartuta batuan onartuta daudela. Zer arazo dago? Argitaletxeak eta horiek guztiak Euskal Herri guztiarendako egiten dute. Normalean, batuan oinarrituta, eta batuko lexiko asko da gipuzkeratik-edo. Baina gero eta gehiago beste euskalkietatik hartzen ari da. Horre-

gatik Etxarriko edozein haurrek urtxintxa erabiliko du barra-barra, eta, berriz, ez dugu erabiliko kattagorri. Eta biak onartuta daude.

Nere ustean batukiak sortu behar dira. Sakanan modu batekoa izanen da, Burundan beste modu batekoa, Goierriin beste bat, eta horrela. Seinale ona izanen da, beti ere euskalkitik batura lortzen badugu aldaketa hori egiten.

Hitanoari ere atal bat eskaini diozu.

Hitanoa eta alokutiboa gauza bera ez direla argitzen dut lehengo. Bata besteari lotuta daude. Hitanoa da betik erabiltzen dugunean: hi, hik edo hiri zu, zuk edo zuri beharrean. Hau da, zu etor zara esan beharrean hi etorria haiz. Gauza da hitanoarekin hasten bazara alokutiborekin segitu behar duzula. Eta alokutiboa zer da? *Berandu etorri naiz*. Hor ez dago ez hi, ez hik, ez hiri, ez zu ez zer ere. Ni dago. Hori esatea beste modu batean: *berandu etorri nok* edo *non*, Etxarrin. Hori alokutiboa da. Baina hi noiz etor haiz? Eta gero ni berandu etorri naiz gaizki dago. *Hi noiz etor haiz? Garaiz etor nok/non* esan beharko litzateke. Sakana guztiko hitamoak jaso ditut.

Eta bukatzeko testu konparazioa.

Bi pasarte xeble hartzu ditut. Batuan jarri nituen eta gero hiru hizkeretara pasa: Arruazukoa, Etxarrikoa eta Urdiaingoa.

DUELA 25 URTE...



Olentzero eta erregeen jantzi berriak

Roberto Cristobalek erregeendako gurdi eleganteak egin zituen 1994an. Ignazio Floresen laguntzarekin Olentzerori gurdia egin zioten 1995ean. Eta 1996an baten eta besteen jantziak berritzea erabaki zuten. Olentzerori arropa erosteko premia ikusi zuten ziordiarrek. Gainera, 16 urte ziren erregeak, Ama Birjinak eta San Josek arropa bera zutela. Garai batean Gaztiak leku elkarteak egon zen Ziordian eta gordeta zuten dirua jantzi berriak ordaintzeko erabili zen.



Olentzero eta Mari Domingi bidean dira

Menditik ibarrera jaitsiko dira ostiralean sakandar txiki eta handiak bisitatzera

SAKANA
Gutun pila jaso ondoren, haiei erantzuteko garaia iritsi zaie Olentzerori eta Mari Domingiri. Basoa, txondorra eta besteak atzean utzita herrietara etorriko da bikotea. Haiei behar bezalako harrera egiteko lanean ari dira makina bat sakandar batzordeetan. Lehendik nahiko lan ez zutela pandemiak gehiagoz zaildu die harreraren anto-

laketa. Eta, esaterako, horregatik, Zuhatzun bertan behera gelditu da. Antolatzaileek protokoloak egokitu dituzte ostiralerako. Olatzagutikoak, esate baterako, honako neurriak ditu: Olentzero bakarrik antolakuntzakoek lagundu dezakete, puntu jakinetan agurtuko du ikazkinak eta haietan elkarrekin bizi ez diren pertsonen arteko segurtasun tarteak 1,5

metrokoa izan beharko du, puntu horietan gehienez ere 150 pertsona elkartu daitezke, Olentzero agurtzera puntu bakar batera joan, antolatzaileek emandako jarraibideak bete beharko dira eta musukoa erabiltzea gomendatu dute.

Horregatik, indarrean diren osasun neurriak betetzeko eskatu dute. Baina Olentzero eta Mari Domingi ostiral arratsaldean etorriko badira, egun horretan, goizez, kalera aterako direnak haurrak dira. Uharte Arakilen eta Etxarri Aranatzeko *pazkuan amores* esaera erabiliko dute atea jo eta eskatzerakoan. Beste herri askotan kantu eskean ibiliko dira haur kuadrilak.

Erregeak opariekin heldu dira

Ekialdeko hiru aztiak ilbeltzaren 5ean, asteazkenarekin, iritsiko dira gurera

SAKANA
Meltxor, Gaspar eta Baltasar, trakatan, trakatan, Sakanarako bidean daude. Horren jakitun ibarreko hainbat herritan harrerak prestatzeko eta erregeen kabalkadak antolatzeko batzordeak sortu dira. Eta lehendik errege harrera bat antolatzea zaila bazen, COVID-19 gaitzak are gehiago zaildu du eginkizuna. Horregatik antolatzaileek indarrean dauden osasun arauak betetzeko eskatu dute. Batzorde batzuk pandemiaren bilakaeraren zain daude harrera antolatu edo ez jakiteko. Horien artean daude erabakia atzo hartu behar zuten Lakuntza eta Arbizu.

Ekialdeko hiru erregeek norabidea okertu ez dezaten eta Sakana alde batera ez uzteko, ilbeltzaren 5ean hainbat ume kalera aterako dira faleekin zarata ateratzera. Hala egingen dute eguerdi partean Irañetan eta Lizarragan. Arratsaldean, berriz, Etxarri Aranatzeko, Iturmendin eta Altsasun. Azken herri horretan opilak banatu eta saria opatze duenak faraduen errege izendatuko dute. Eta bera buru dela, herrian barna haur segizio zaratatsuek erregeen etorrera iragarriko du. Altsasuko ohitura hori 1974ean berreskuratu zuten Enrike Zelaia eta Luis Mari Lopez de Goikoetxeak.

Abenduak 24

Etxeberri

19:00 Menditik jaitsiko da. Haurrak dauden etxeetako atera hurbildu eta atea zeharkatu gabe haurrekin solastu eta eskutitzak jaso eta agurtuko dituzte.

Etxarren

16:30 Olentzerori harrera. Urritzola bidean, herri sarreran. Kalejira herriko plazaraino trikitiaz lagundurik. Plazan haurrei opariak banatuko dizkiete eta agurtzeko Txoripanak taldeak dantza ikuskitzuna eskainiko die.

Satrustegi- Hiriberri A.

17:30 Txokolate jana. Satrustegiko plazan. **18:00** Andiatik jaitsiko den ikazkinari harrera. Satrustegiko plazan. **18:30** Olentzero agurtzea. Hiriberri Arakilgo plazan.

Ihabar

18:30 Harrera. Andiatik jaitsita, autobia azpiko zubian. Kalejira herri-tik. Plazan haurrek aurrekoa dantzatzeko diete eta kontzeju etxe-ko bajaran opariak.

Irañeta

18:00 Harrera. Andiatik jaitsita, autobus geltoki inguruan. Kalejira egin ondoren, elkarrekin opariak banatuko ditu.

Uharte Arakil

18:00 Harrera. Itxesi aldean. Herrian barna kalejira eta plazan bukatuko du.

Arruazu

17:00 Haurrendako tailerrak:

egurtxoak margotu, eta sua piztuko dute futbol zelaian. Plazan. **18:00** Haurrek prestatutako egurtxoak erretzeko aukera izanen dute. Futbol zelaian. **19:00** Harrera. Arnazbidetik agurtuko da. Etxe batzuetara joango da, sartu gabe, eta tordo azpian amaituko du opariak emateko.

Lakuntza

18:00 Harrera. Plazan. Herrian barna kalejira egingen da eta, ondoren, opariak frontoian banatuko dituzte.

Arbizu

18:30 Harrera. Beheko basoan. Arbizuarrek plazan elkartu eta beheko basora joanen dira. Bidean Olentzero eta Mari Domingirekin topo egingen dute eta herrira bueltan kalejira egingen dute. Argi Bidea elkartean amaituko dute.

Unanu

18:00 Harrera. Beraingoa bidea. Han harrera egin, herrian barna kalejira eta akaberan txokolate jana izanen da. Haurrak kantu eskean ariko dira aurretik. Bakoitza bere kandilarekin aterako da.

Lizarraga

18:00 Harrera. Dorraoko bidetik. Beraiekin batera kantuz herriari buelta emanen diote. Etxe bakoitzak kandila ateratzera animatu dute; "su bat etxe bat".

Etxarri Aranatz

17:30 Harrera. Aldapasoron. Txokolatea banatuko da, eta herrian barna kalejira egingen dute.

Bakaiku

18:00 Harrera: Aiztin. Herriari buelta txiki bat egingo zaio.

Iturmendi

16:30 Gabon kantak. **17:30** Txokolate jana. **18:30** Olentzero eta Mari Domingi herritik buelta.

Urdiain

18:00 Harrera. Portuko kalea. Herrian barna kalejiran plazaraino, eta bertan dantza egingen diote. Ibilbidea elizan bukatuko da.

Altsasu

12:00 Mari Domingiri harrera. Zangitu Fanfarrea eta Altsasuko Kantuzekin lortia zabalguneraino. Bertan eskutitzen bilketa egingen da. Foruen plazan. **17:30** Olentzerori harrera. Ermita kalean. Kantuz lagunduko zaio eta ardo beroa banatuko da. Ibilbidea: Ermita kalea, San Juan, Idertzagain, Zumalakarregi plaza, Bakea kalea, lortia zabalgunea eta Foru plaza. **19:30** Topaketa. Foru plazan. Eguraldi txarra eginez gero Burunda frontoian.

Olazti

18:00-19:00 Agurtzeko tokiak: Sancti Espiritu, Inguraketa / Portua, Intsumisioaren plaza, kale Nagusia - Urbasa etorbidea, San Sebastian baseliza, Arronga plaza eta kale Nagusia-Kamiogaina.

Ziordia

18:00 Harrera: Menditik jaitsiko dira. Herritik kalejira eta frontoian amaituko dute.

Ilbeltzak 3

Altsasu

18:30 Pajeen irteera. Zelandin. **19:00** Eskutitzen bilketa. Burunda frontoian.

Ilbeltzak 3

Irurtzun

18:30 Harrera: Bi Ahizpe kaleko beheko aldean. Herrian barna ibiliko dira, San Martin elizan bukatzeko. Bertan haurrei harrera egingen diete.

Uharte Arakil

18:00 Harrera. Zerradoan. Herritik zehar elizan bukatuko dute.

Ergoiena

Eguerdian Erreegi deia. Umeek fale hotsekin erregeei dei egingen diete. **18:00** Harrera. Elkartean hasiko da eta herriari buelta eman ondoren, Dorraora eta Unanura abiatuko da. **19:30** Segizioa. Lizarragatik iritsi eta dorrobarrek harrera egingen diete. Jatekoa eta edatekoa izanen da.

20:30 Harrera. Dorraoko bidetik Unanura sartuko dira. Plazan dantzatu, abestu eta haurrak erregeekin egonen dira. Ondoren, pastak, moskatela eta mostoa dastatuko dute.

Etxarri Aranatz

19:00 Elizan. Herrian barna ibiliko dira, estalpean bukatzeko.

Iturmendi

20:00 Auzatea eta, ondoren, saskiaren zozketa.

Altsasu

17:30 Zintzarri jotzea. Foru plazan. **18:00** Errege magoen kabalgata. Zelai kaletik Ibilbidea: Zelai, Isidoro Melero, San Juan, Burunda, Nafarroa, Altsania, Bakea, Erkuden, Bakea, Gartzia Ximenez eta Foru plaza. **19:00** Errege Magoekin topaketa. Foru plazan.

Olatzagutia

18:00 Kalejira. Autobus geltokitik abiatuta, bukaera frontoian.

Ziordia

19:00 Erregeen segizioa. Herrian barna ibiliko da, elizan bukatzeko. Haurrei goxokiak emanen dizkiete. Texeria kalean.



AGENDA

PANDEMIA DELA ETA EGITARAUE-TAN ALDAKETAK EGON DAITEZKE

OSTEGUNA 23

ETXARRI ARANATZ Gabonetako eskulanak eta txokolatada.

Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak antolatuta.

17:00etatik aurrera, gaztetxean.

IRURTZUN Ipuin kontalaria: *Neguko Argiak* Ventura Ruizen eskutik. Elebiduna.

17:30ean, liburutegian.

ALTSASU Biolentzia kapitalistari aurre egin! Sakanako GKS^k antolatutako hitzaldia: *Kartzela eta errepresioa*. Hizlaria: Ibon Goiaskoetxea preso ohia.

19:00etan, Gure Etxean.

ALTSASU Altsasuko musika eta dantza eskolako saxo eta klarinete taldearen kalejira.

19:00etan, herrian zehar.

ZIORDIA Olentzero lehiaketaren sari banaketa.

19:00etan, liburutegian.

ALTSASU Nafarroako Birziklatze Zentro Birtuala.

16:30etan, lortia kultur gunean.

OSTIRALA 24

ETXARRI ARANATZ Sareren elkartasun denda.

12:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Sareren Etxerako bidean kontzentrazioa.

20:00etan, plazan.

IGANDEA 26

SAKANA Sareren kotxe karabana: Irurtzundik Ziordira.

11:00etan, herrietatik.

ALTSASU Basoixiren aldeako ekimena: artelanak sortu eta lanen instalazioa eginen dute.

11:00etatik aurrera, Gure Etxean eta Basoixin.

ALTSASU Altsasuko musika eta dantza eskolako haize-metal taldearen kalejira.

12:30etik aurrera, herrian zehar.

OLAZTI Pantxo Balbuena mariatxiaren kontzertua.

13:00etan, Barandi tabernan.

OLAZTI Zinema euskaraz: Zutik filmaren emanaldia.

17:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Biolentzia kapitalistari aurre egin manifestazioa.

Sakanako Kontseilu Sozialistak eta Sakanako GKS^k deituta.

18:00etan, Foru plazatik.

UHARTE ARAKIL *Everybody needs heroes!* Xabier Artiedaren antzezlanaren emanaldia. 3 euro.

19:00etan, udaletxearen ganbaran.

IRURTZUN Piku Gabonak: *Munduko taupadak* mendi proiektzioa.

19:30ean, Pikuxar elkartean.

ALTSASU *Euskal preso eta iheslariak* *Euskal Herrira* elkarretaratzea.

20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 27

ALTSASU Pentsio duinen aldeko

elkarretaratzea.

12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ALTSASU Ipuin kontalaria: Xabier Flamariqueren *Flobin* ipuin motzak.

12:00etan, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Nafarroako Birziklatze Zentro Birtuala.

16:30etik 20:30era, liburutegian.

ETXARRI ARANATZ Ping pong txapelketa. Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak antolatuta.

17:30ean, gaztetxean.

IRURTZUN Gabonetako zinema euskaraz.

17:30ean, kultur etxean.

ASTEARTEA 28

IRURTZUN Euskal Ekitaldiak: Euskaraz futboleant.

12:00etan, kiroldegian.

ALTSASU Ipuin kontalaria: Jaione Urtaşuneren *Pontxa eta lur magikoa*.

12:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU *Mar Menor* bizirik. *Zero isurketa* erakusketaren mustutze ekitaldia.

12:00etan, lortia kultur guneko erakusketa gelan.

IRURTZUN Nafarroako Birziklatze Zentro Birtuala.

16:30etik 20:00etara, liburutegian.

UHARTE ARAKIL Izaskun Mujika ipuin kontalaria. 2 euro.

18:00etan, udaletxearen ganbaran.

ASTEAZKENA 29

URDIAIN Emakume langileon

ZINEMA

ALTSASU

ORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

El lobo gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Osteguna 23: 19:00

Larunbata 25: 19:30

Igandea 26: 19:30

La patrulla canina familiarteko filmaren euskarazko emanaldia

Igandea 26: 17:00

Way Down gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Osteguna 30: 19:30

Larunbata 1: 19:00

Igandea 2: 19:00

Encanto familiarteko filmaren euskarazko emanaldia

Igandea 12: 17:00

ORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

La familia Bloom filmaren emanaldia

Osteguna 23: 19:00

Larunbata 25: 19:30

Igandea 26: 19:30

eskolak. Lehenengo saioa: *Egungo jai giroaz eta hipersexualizazioaz hausnartzen*.

12:00etan, gaztetxean.

ALTSASU Ipuin kontalaria: Birjiñe Albiraren *Sutondoan*.

12:00etan, lortia kultur gunean.

LIZARRAGA Haurrendako jolasak.

17:00etan, elkartean.

ALTSASU Gazte agenda: Pantaila erraldoiak.

17:00etatik 21:00etara,

Intxostiaputa gazte

gunean.

URDIAIN *Bakearen eta bizikidetzaren aldeko* *liburutegiak* programaren *Eskubidea* *dugu...* tailerra.

Nafarroako Gobernuak antolatuta.

18:00etan, liburutegian.

IRURTZUN Nafarroako Birziklatze Zentro Birtuala.

16:30etik 20:00etara, liburutegian.

OSTEGUNA 30

OLAZTI Jolas parkea.

11:00etatik 13:00etara eta

15:30etik 18:30era, Erburua

kiroldegian.

ALTSASU Gazte agenda: Pantaila erraldoiak.

17:00etatik 21:00etara,

Intxostiapunta gazte gunean.

IRURTZUN Gabonetako parkea: haur jolasak Tramankulurekin.

17:30etik 20:00etara, pilotalekuan.

IRURTZUN Piku Gabonak: Film laburren proiektzioa Urko Mauduitekin.

19:30ean, Pikuxar elkartean.

ETXARRI ARANATZ Pintxo potea, jaskiyan zozketa eta Fitoskins.

Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak antolatuta.

19:30etik aurrera, gaztetxean.

OSTIRALA 31

ALTSASU Aizkorbe – Erga – Trinitatea ibilbidea eginen du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak.

08:00etan, egoitzatik.

IRURTZUN Txokolate jana eta Trinitatera igoera.

09:00etan, Pikuxarren.

UHARTE ARAKIL San Silbestrea. Berriain Kilometro Bertikalak antolatuta.

16:00etan, plazan.

IRURTZUN Piku Gabonak: Pikubestre bosgarren herri lasterketa. Umeak 150 metro, gazteak 500 metro eta helduak 4.2 km.

Haurrak eta gazteak, 16:30ean; helduak, 17:00etan, Lizarra kalean.

OLAZTI Urte zaharra: Remenber 40. Anniversary. Buli / Kulimery, Boni / Maik.ti eta Morti Olaztiko dj-ak.

17:00etatik 22:00etara, Clinker jatetxean.

ETXARRI ARANATZ *Ur goiena ur barrena* Sareren ekimena.


18:00etan, plazatik herriko presoan etxetara.





ALTSASU Here comes the sun. Beriain: mendi baten erretratua
Chema Gutiérrez Landaburu eta Jose Antonio Azpilicueta Albizu margolarien lanen erakusketa.

Abenduaren 24ra arte. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, larunbatetan zuzeneko baina ordu bat lehenago eta igandetan 18:30etik 19:30era. Iortia kultur gunearen erakusketa gelan.



ALTSASU Mar Menor bizirik. Zero isurketa. Boria Raquel Meyers eta Arkaitz Saiz.

Abenduaren 28tik urtarrilaren 15era. Abenduaren 29tik urtarrilaren 9ra 10:00etatik 13:00etara; urtarrilaren 10etik 15era 17:00etatik 20:00etara. Iortia kultur guneko erakusketa gelan.



OLAIZTI. Jaiotzen erakusketa. Urtarrilaren 9ra arte.

Astegunetan 18:00etatik 20:00etara, larunbatetan 17:30etik 20:00etara eta igandetan 13:30etik 14:30era eta 17:30etik 20:30era. Belenzaleen elkartearen.

ALTSASU XLII. San Silbestrea Morioren oroimenez.

Dantzaleku Sakanak eta Sakana Triatloi Taldeak antolatuta. 5 kilometroko ibilbidea.
Haurrak, 18:00etan; helduak, 19:00etan, udaletxearen aurrean.

ALTSASU Azken ostirala: Sareren Etxerako bidean elkarretaratzea.
19:30ean, udaletxearen aurrean.

LARUNBATA 1

ALTSASU Auzatea.
20:00etan, Gure Etxean.

IGANDEA 2

IRURTZUN Bertso desafioa.
18:30ean, Pikuxarren.

ALTSASU Euskal preso eta iheslariak Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 3

ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.
12:00etan, udaletxearen parean.

UHARTE ARAKIL Uharte Arakili buruzko J.C. Irigoien argazki proiektua.
18:00etan, udaletxearen ganbaran.

IRURTZUN Gabonetako zinema euskaraz.
17:30ean, kultur etxean.

ASTEARTEA 4

IRURTZUN Gazteendako escape rooma.
Sakanako Gizarte Zerbitzuek antolatuta.
Goizez eta arratsalde, kultur etxean.

OSTEGUNA 6

ALTSASU 2019ko kintari harrera eta zapi banaketa.

ZORION AGURRAK



Luis
Boltio, hi eta beste geñakuek etxeratu artio hemen eztek ezez akatu! Eutsi lagun eta JTK! Hi launek.



Naroa B
Zorionak reina!!



Lur Uribetxeberria Ziganda
2021eko abenduaren 19an jaio da.
Ongi etorri Lur!



11:00etan, udaletxearen aurrean (eguraldi txarrekin Burunda frontoian).

ALTSASU 2020ko kintari harrera eta zapi banaketa.
12:00etan, udaletxearen aurrean (eguraldi txarrekin Burunda frontoian).

Altsasu 2022ko kintoen errege-erreginen hautaketa.
13:00etan, Foru plazan.

LARUNBATA 8

IRURTZUN Irurtzongo VII. Frontenis txapelketa.
08:00etatik 20:00etara, pilotalekuan.

IRURTZUN Piku Gabonak: Mus eta partxis txapelketa.
Izena ematea: 16:00etan; txapelketa: 16:30ean, Pikuxar elkartearen.

ALTSASU DUNBO musikala familiarteko ikuskizuna.
Sarrerak agortuta.
17:00etan, Iortia kultur gunean.

IGANDEA 9

ETXARRI ARANATZ Haurrendako pelikula: Elfkinak.
Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak antolatuta.
18:30ean, gaztetxean.

ALTSASU Euskal preso eta iheslariak Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 10

ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

OSTEGUNA 13

ALTSASU Mar Menor bizirik. Zero isurketa. Naturarako eskubideak hitzaldia. Hizlariak: Teresa Vicente Gimenez eta Mentxu Rodríguez Puente.
18:30ean, Iortia kultur gunean.



ESKELA



Inazia Lizarraga Aldaburu

Ez adiorik, gurekin gelditzen zara

Zure familia
Olazti

ESKELA



Yessika Beatriz Rubio Alonso
'Yessi'

Izandako bizipoza,
erakutsitako kemena,
gure artean betirako
zure irrintzien oihartzuna

Jeingenekoa (Etxarri Aranatz)
Iruñean, 2021ko abenduaren 18an



OROIGARRIA



Vane
Lurteurrena

Gure bihotzetan
izango zaitugu beti

Zure kuadrilla



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€
prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 • www.izarratanatorio.com

JAIOTZAK

- **Israe Benserya**, abenduaren 3an Irurtzunen
- **Xane Arroki Otxagabia**, abenduaren 15ean Lakuntzan
- **Lur Uribetxeberria Ziganda**, abenduaren 19an, Irurtzunen

EZKONTZAK

- **Iker De Carlos Larrainzar eta Ivan Cavalgante Murillo**, abenduaren 16an Irurtzunen

HERIOTZAK

- **Primitivo Bakaikoa Razkin**, abenduaren 15ean Arbizun
- **Jose Manuel Azkona Martinez**, abenduaren 16an Altsasun
- **Teodora Mozo Mozo**, abenduaren 20an Unanun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

Jarri zure iragarki laburra!

948 56 42 75
iragarki@guaixe.eus
www.guaixe.eus/iragarkiak



IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK
SALGAI
Pisua bajearekin salgai: Etxarri Aranazko Santakitz kalean. Interesatuak deitu 669 156 117 tfnora.

LEHIAKETAK
Asun Casasola VII. Ipuin Lehiaketa: Aurtengo gaia "Iristerakoan jakinarazi" izango da. Lau kategoriaz izango ditu lehiaketak: 10-16 urte arteko gazteendako euskara eta gaztelarazko kategoriak eta 16 urtetik gorakoentzat ere euskara eta gaztelarazko kategoriak. Lanak bidaltzeko epea Otsailaren 10ean amaitzen da. Sariak 300 eta 100 euro bitartean egongo dira. Oinarriak <https://asuncasasolaipuinak.eus/oinarriak-bases> estekan kontsultatu daitezke edo asuncasasolaipuin@gmail.com helbidera idatzi.

Kaixomaitia Kontaketa Erotikoen Lehiaketa: Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute 18 urte edo gehiagoko herritarrek, eta izen-abizenak, posta elektronikoa eta harremanetarako telefono bat zehaztu behako ditu. Parte hartzaile bakoitzak nahi dituen beste lan aurkezteko aukera izango du. Kontaketen luzera 6.000 eta 20.000 karaktere artekoa izango da. Idazlanak euskaraz idatziz eta beste inon argitaratu gabeak izango dira. Lanak aurkezteko epea 2021eko abenduaren 31 arte izango da, www.

kaixomaitia.eus webgunearen bitartez. Ebazpena 2022ko otsailaren 28an jakinaraziko da, 8 finalistentzat saria egongo da; irabazleak 1000 euroko saria, Elkar argitaletxearen liburu sorta eta 100 euroko Elkar liburu dendarako opari txartela. Informazio gehiago kaixomaitia.eus.

OHARRAK
Odol emateak Altsasun: Abenduaren 28, 29 eta 30ean, 17:00etatik 20:30ra eta 31n 9:30tik 13:00etara. Informazio gehiago www.adona.es/.

Harrera 2019 2020 urteetan jaiotako Altsasuko haurrei: 2022ko urtarrilaren 6an goizeko 11:00etan, 2019an jaiotako kintari eta 12:00etan 2020an jaiotako kintari harrera egingo zaie udal-letxe aurrean. Zure seme-alaba altsasuarra bada baina erroldaturik ez badago, abenduaren 20ra arte bere izena eman dezakezu zapi eta kintaren lehen argazkia egiteko ekitaldian parte hartzeko. Izena emateko lortia Kultur gunean izena eman edo www.ortia.kultura.com web orrian inprimakia bete.

Sakanako Independentzia eguneko bazkari eta kontzertuetarako sarrerak salgai: Sortu Sakanak deituta, Urtarrilaren 15ean, Bakaikun ospatuko den Independentzia egunean ospatuko den herri bazkari-rako eta kontzertuetarako, ticket-ak ohiko tokie-

tan daude salgai. Egitarauan aldaketak egon daitezke unean uneko osasun neurrien arabera.

Lakuntzako Gaztetxokoan izena emateko epea zabalik: Abendutik maiatzera larunbata eta igandetan, 17:00etatik - 20:30ra egon da zabalik 11 - 14 urte bitarteko gazteentzat (2007tik 2010era bitartean jaiotakoak). Tasa 40 euro izango dira (5 euro/ hilabeteko). Tasa ordaintzeko sabuespenak egon dira diruz urri dabilzala frogatzen dutenentzat, udalari eskaria egin ez aldez aurretik, Oinarriko Gizarke Zerbitzuak emandako txostena baliatuta. Seme-alabak Gaztetxokoan inskribatzen diutuzten familiek, izena emateko orria betetzeaz gain, udalak helaraziko dien dokumentua sinatu beharko dute Parte hartzeko baldintzak onartzen dituztela ziurtatzeko.

Aralarko santutegi ondoan dagoen eraikina (Lakuntzetxe) zaharberritzeko proiektuan lagundu nahi duenak ES11 3008 0045 9840 7184 5517 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortpena egitean zati bat bueltatuko diote.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Igandean Gure Pilota Sakanako XVII. Nesken Pala Torneoko txapela jantzi nahiko luke Naroa Otxoa Nafarroako txapeldunak, denboraldiari ginga jartzeko.

Noiz hasi zinen palan?

18 urte urte ditut eta orain dela 11 urte hasi nintzen. Anaia frontoian ibiltzen zen, Gure Pilotako neskak ikusten nituen bertan, eta, azkenean, hastera animatu nintzen.

Txikitatik hasi zinen finalelara sailkatzen eta bidea egiten.

Urtez urte txapelak lortzen joan naiz, orain arte. Ez dakit zenbat txapela izango ditudan, hama-bosten bat inguru. Ia urte guztikoak dira, Nafarroako Txapelketakoak ez badira, Sakanako Nesken Pala Torneokoak.

Aurten Larraungo Marian Saralegi-ekin osatu zenuen bikotea Emakumezkoen Nafarroako Binakako Bigarren Mailako Paleta Goma Txapelketan aritzeko.

Gure Pilotan nire adineko palistarik ez dago, bera ere Larraun klubean bakarrik zegoenez, biak batu eta elkarrekin aritu ginen, gustura.

Azaroaren 26an jokatu zenuen finala Gure Pilotako Ane Eskalaren eta Uxue Mendinuetaen kontra.

Bai, final oso gogorra izan zen. Hasieratik tentsio handian geunden. Gu atzetik hasi ginen, baina 22na berdindu genuen, gero 27na, eta hortik zuzenean 30era joan ginen. Oso pozik, egia esan. **Igandean beste txapela bat janzteko aukera duzu, Gure Pilota Sakanako XVII. Nesken Pala Torneoko Lehen mailako finala jokatu duzulako. Sakanako torneoa izen handia du.**

Bai. Sakanako txapelketak urte asko daramatza, aurten 17. edizioa izango da, eta urtero indar gehiago hartzen ari da. Txikitatik hasi nintzen txapelketa honetan parte hartzen, Lehen Mailara iritsi arte, eta oso kontentu nago bertan jokatzeari. **Arabako Olatz Zulaikarekin osatu duzu bikotea Sakanako torneoa.** Olatz gasteiztarra da eta duela 2 urte ere Sakanako torneoa elkarrekin jokatu genuen. Finalera iritsi ginen, baina finala galdu egin genuen. Beste mailako txapelak badituzte, baina Lehen mailakoa ez, eta azken edizioan arantza horrekin geratu nintzen. Ea aurten posible den. Oso ongi komunikatzen gara. Ni atzelaria naiz, eta berak segurtasun handia ematen dit.

"Sakanako Torneoko finala oso gogorra izango da"

NAROA OTXOA GARMENDIA GURE PILOTAKO PALISTA

PALA Nafarroako Binakako Bigarren Mailako txapela lortu berri, igandean Sakanako Nesken Torneoko Lehen mailako txapela jantzi nahiko luke palista etxarriarrak



Naroa Otxoa Garmendiak Lehen mailako Sakanako txapela jantzi nahiko luke. UTZITAKOA

Finalerdia Nahia Eizmendiren eta Andrea Lusarretaren kontra jokatu zenuen larunbatean.

Nahiak eta Andreak aurretik kanporaketa partida jokatu zuten, baina hala ere lehia oso borrokakua izan zen. Gogotik lan egin behar izan genuen, baina 25 eta 16 gailendu ginen.

Sakanako torneoko finalera sailkatzea espero zenuen?

Espero... ba ez dakit. Beti pentsatzen duzu lan eginez helburuak lor daitezkeela. Itxaropena bagenuen, eta finalera iritsi gara. **Igandean Paula Gorostiaga irundarra eta Saioa Berakoetxea lekunberriarra izango dituzue aurkari. Nolako finala aurreikusten duzu?** Oso zaila. Paula aurrean oso bizkorra da eta Saioak indar handia du. Nahiko parekatuta ibiliko garela uste dut, baina ikusiko dugu.

Eliteko finalean Amaia Irazustabarrak eta zure taldekide Irati Igoa etxarriarrak Uxue Murillo eta Itsaso Erasun izango dituzte aurkari.

Miguel Angel Aristorenak bikote oso parekatuak egin ditu Sakanako torneorako. Elite mailan palista guztiek maila handia dute. Final gogorra izango da.

"AZKEN EDIZIOAN TXAPELDUNORDEAK IZAN GINEN, EA AURTEN ARANTZA KENTZEN DUGUN"

Sakanako finalak

Abenduak 26, 11:00etan

- **Lehen maila:** Olatz Zulaika-Naroa Otxoa / Saioa Berakoetxea-Paula Gorostiaga
- **Eliteak:** Uxue Murillo- Itsaso Erasun / Amaia Irazustabarrena -Irati Igoa

Abenduak 23, 16:30ean

- **Gaztetxoan mailako finalak**

Donostian zaude fisioterapeuta ikasketak egiten. Nola moldatzen zara palan entrenatzeko?

Astelehenetan eta asteazkenetan Astigarragan entrenatzen dut, beste hiru neskekin batera. As-teartetan eta ostegunetan Loiolan entrenatzen dut, mutilekin. Oso ongi hartu naute eta kontentu nago. Mutilei nabaritzen zaie indar gehiago dutela eta gehiago exijitzen didate, baina hori niretako hobia da.

Nola planteatuko duzu igandeko finaleko prestaketa?

Astelehenean eta asteazkenean azterketak izan nituen baina burua arintzeko pixka bat entrenatzen saiatu nintzen. Gaur, osteguna, pala partida dugu Olatz Zulaikak eta biok Gasteizko Alde Zaharrean, eta finalerako entrenamendu gisa hartuko dut.

Zein giro espero duzue Etxarriko igandeko finalean?

Sakanako finalean beti giro ederra egoten da. Horregatik, sakandarrak Etxarri Aranazko pilotalekura hurbiltzera gonbidatzen ditut ikusgarria izaten delako, giro eder eta hunkigarria, ikusteko oso polita. Pala berezia da niretako, betiko zaletasuna, eta frontoira oso lotuta nago.



www.txartel.net | 948 564 002
txartel@txartel.net



Saritutakoek talde argazkia atera zuten Olaztiko Kultur Etxean egindako sari ematean.

Sakanako kirolari onenek euren saria dute eskutan

Sakanako Mankomunitateak Olaztiko Kultur Etxean antolatutako ekitaldian saritu guztiak izan ziren, Igor Arrieta, Haizea Ramirez de Alda eta Ioseba Fernandez izan ezik. Sarituek "eskertuta" jaso zuten euren ibilbideari egindako aitortza

Maidar Betelu Ganboa OLAZTI

Olaztiko Kultur Etxeak 2019, 2020 eta 2021eko Sakanako Kirolari Hoberenak sariketaren sari ematea hartu zuen ostiral iluntzean, Sakanako Mankomunitateak antolaturik.

Amaia Gerrikagoitia Uriarte kirol teknikariak gidatutako ekitaldian saritutako kirolariak banan-bana igo ziren oholtzara

eta saria lortzeko epaimahaiak kontuan hartutako merituak entzuten zituzten bitartean, oroigarria eta aitortza jaso zuten. Sariak Mankomunitateko Kirol Batzordeko presidente Arturo Carreño Mundiñanok, Olaztiko alkate Joseba Vizuete Askargortak eta Olaztiko Kirol zinegotzi Naroa Gurmino Vicentek eman zituzten.

Ekitaldian saritutako kirolari guztiak egon ziren hiru izan ezik: Igor Arrieta Lizarraga txirrindularia, Ioseba Fernandez Fernandez irristalaria eta Haizea Ramirez de Alda Pozueta korrikalaria. Igor Arrieta Kern Pharma bere taldearekin kontzentratuta zegoenez, bere anaia Mikelek jaso zuen saria. Ioseba Fernandez eta Haizea Ramirez

de Alda ezin izan ziren ekitaldira gerturatu, azken hau konfinatuta zegoelako. Gainontzeko kirolari onenak –Aimar Tadeo Arkauz txirrindularia, Nahia Imaz Perez txirrindularia, Irati Igoa Sesma palista eta futbolaria eta Josema Urrestarazu Zabalo eskalatzailea– ekitaldian izan ziren. Baita ere talde onenaren saria jaso zuten Bargagain Taekwondo klubeko ordezkariak eta euskara sustatzeagatik saritua izan zen Triku Trail mendi lasterketa taldeko ordezkariak eta aipamen berezia jaso zuen Imanol Arregi Sarasa Osasuna Magna Xotako entrenatzailea.

Saritutakoak "oso pozik"

Guztiak eskertuta zeuden aitortzarekin, eta hala adierazi zuten ekitaldi bukaerako auzatean. "Bai, oso pozik hartu dugu saria" zioten Aimar Tadeo eta Nahia Imaz txirrindularen. 2022 denboraldia prestatzen buru belarri dabilta biak. Irati Igoak pozez jaso zuen saria, baina berehala joan behar izan zuen asteburu ederra zuelako aurretik: Nafarroako Frontenis Txapelketako finala, Sakanako Nesken Palako finalerdia eta Mulier futbol taldearekin partida. Izkina batean, Triku Trail taldeko ordezkariak eta Josema Urrestarazuk mendia eta eskalada zituzten hizpide. Bestalde, batarekin eta bestearekin gustura hitz egiten aritu zen Imanol Arregi. "Halako aitortzak eskertzen dira, eta bertakoek eginak badira, ilusioa handiagoa da" zioen Lehen Mailako Areto Futboleko entrenatzaile onenaren saria sarritan jaso duen eta etxean hamaika sari eta aitortza dituen entrenatzaile irurtzundarrak. Saritutakoak gustura aritu ziren elkarrekin solasean.



Martija, azalpenak ematen. ASPE

PILOTA Ezkurdiak eta Martijak buelta eman nahi diote

Binakako Txapelketako seigarren jardunaldia martxan da. Atzo, asteazkena, Elezkanok eta Zabalek Urrutikoetxea eta Aranguren izan zituzten aurkari Arrasaten.

Larunbatean Altunak eta Martijak Peña II.aren eta Albisuren kontra jokatu dute Astelenan. Bi bikoak puntuen faltan larrian daude, eta orain arteko bolada txarrari bukaera eman nahi diote hil ala biziko partidari. Larunbatean, Labriten, Ezkurdiak eta Tolosak Jaka eta Mariezkurrena izanzen dituzte aurkari Iruñeko Bomboneran. Lehia estua aurreikusten da, Ezkurdiak joera ezkorri buelta eman nahi diolako eta berak eta Tolosak bigarren puntua lortu nahi dutelako, txapelketatik ez erortzeko, baina asmo bera dute arerioek eta partida latza espero da.

Promozioko Binakakoan Baikaok eta Elizegik ikusgarri jarraitzen dute, jokaturako bost partidak irabazita. Larunbatean, Labriten, Egiuren V.a eta Un-toria izango dituzte aurkari.

Irurtzungo harrobia indartsu dator: hiru bikote txapeldun

PILOTA Iabek-Zabala, Salaberria-Salcedo eta Bustince-Lizarraga dira txapeldunak, eta Igoa-Amiano bigarrenak

Igandean Nafarroako Kirol Joketako Nafarroako Binakako Pilota Txapelketako kadete, jubenil eta senior mailako finalak jokatu ziren Iruñeko Labrit pilotalekuan, eta Irurtzun klubeko bikoteak ikusgarri aritu

ziren. Miguel Angel Berazak gidatzen duen klubak harrobi bikaina dakar bultzaka eta lau bikok jokatu zituzten finalak.

Kadeteen Hirugarren mailako finalean Iabek eta Zabalak (Irurtzun) 22 eta 3 hartu zituzten

mendean Mendioroz eta Agreda (Ardoi). Kadeteen Bigarren mailako finalean Rekalderen eta Okiñenaren kontra (Oberena) galdu zuten Igoak eta Amianok (Irurtzun). Jubenilen Bigarren mailan, Salaberriak eta Salcedok (Irurtzun) 22 eta 19 hartu zituzten mendean Sarasibar eta Garcia (Oberena). Bukatzeko, Seniorren Hirugarren mailan Bustinzek eta Lizarragak (Irurtzun) jantzi zituzten txapelak, Lergari eta Maizari (Zugarralde) 22 eta 14 irabazi eta gero.



Nafarroako Binakako Pilota Txapelketak finalistak, Labriten. NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

ZIKLO-KROSA Aimar Tadeo bigarren juniorra Iruñean

Igandean Iruñako CX Ziklo-krosa jokatu zen Lezkairun. Junior mailan 2,5 kilometroko zirkuituari sei itzuli egin behar izan zizkioten txirrindulariek. Sakanako Group-Aralar Taldeko Aimar Tadeo Arkauz garaipena lortzear egon zen, lehena baitzen, baina katea atera zitzaion eta ezin izan zuen helmugara lehena iritsi. Suministros Zadorra taldeko Beñat Fernandez de la Peña izan zen txapelduna (41:23), eta Aimar 31 segundora sartu zen, bigarren eta probako lehen nafarra. Quesos Albeniz-Burunda taldeko Mikel Unzilla laugarren iritsi zen, 2:33ra.

Kadeteek bost itzuli osatu behar izan zituzten eta Aranako taldeko Arkaitz Suso gailendu zen (31:31). Quesos Albeniz-Burundako Ekain Imaz hirugarren sailkatu zen, 1:08ra, probako lehen nafarra. Bere taldekide Iker Gomez hamargarren sailkatu zen, Iker Begiristain hamaseigarren eta Hegoi Garcia hemeretzigarren.

ATLETISMOA Senardarrak, Estarriaga eta Beregaña Top-Tenean

Larunbatean ia 400 korrikalarik parte hartu zuten Txantreako Krosean. Lasterketa asteburu bat lehenago jokatzekoa zen, baina uholdeengatik atzeratu behar izan zuten.

Miguel Aristu Perez de Larraia (23:39) eta Maitane Melero Lacasia (25:15) izan ziren Txantreako Kroseko txapeldunak, eta Top-Tenean lau sakandar sailkatu ziren. Adur Senar Asurabarrena lakuntzarra bederatzigarren sailkatu zen (25:17) eta Iraitz Senar Asurabarrena bere anaia hamargarren (25:17). Emakumezkoetan Leire Estarriaga Navarro etxarriarra bosgarren izan zen (30:03) eta Maita Beregaña Ibero uharte arakildarra zazpigarren (31:04).

Bestalde, aipatzekoa da gizonetako beterano mailan Cristobal Galera gailendu zela (25:19), Raul Audikana Arrese olaztiarraren aurretik (26:05). Beteranoetan Juan Carlos Gomez Fernandez altsasuarra bosgarren sailkatu zen (27:07).



Sakanako Xake Txapelketa hogeit minutuko zortzi partidatara jokatu zen.

Mikel Otxoa eta Saioa Torres xakelari onenak

XAKEA Mank-ek antolatutako Sakanako Xake Txapelketan 32 xakelari lehiatu ziren eta Orvina taldeko Mikel Otxoa Aldaz gailendu zitzaion Sakanako Ekain Galarza Arzari lehia estuan. Bederatzi sakandar lehiatu ziren, eta xakera hurbiltzeko deia egin dute

Maider Betelu Ganboa ITURMENDI Larunbatean itxura oso polita zuen Iturmendiko udaletxeko bigarren solairuko areto nagusiak. Isiltasuna zen nagusi, Sakanako XXI. Xake Txapelketan parte hartu zuten 32 xakelariak kontzentrazioa behar baitzuten.

Goizeko 10:00etan hasi zen Sakanako Mankomunitateak Sakanako Zaldi Beltza Xake taldearen eta Nafarroako Xake Federazioaren laguntzarekin antolatutako txapelketa, eta bizi-bizi joan zen. Partidak zuzenean jarraitu ahal izan ziren estatu guztiko xake txapelketa eta partidak jasotzen dituen info64.org web gunean. Goizean hasi, eta bazkaltzeko atsedenaldia

diaren ondoren despeditu zen txapelketa.

Zaldi Beltza taldeko Sebastian Insaustiren eta Koldo Floresen irudikoz, parte hartze polita izan zuen txapelketak. Gehienak gizonetako helduak ziren, baina baita hiruzpalau emakume eta zenbait haur eta gaztetxo ere, arreta handiena bereganatu zutenak. Sakanakoa, aldi berean, Nafarroako Txapelketa izan zen, 1.900 ELO puntutik beherakoa, eta hogeit minutuko zortzi partidatara jokatu zen.

Sariak

Orvina taldeko Mikel Otxoa Aldaz izan zen txapelduna, Sakanako Ekain Galarza Arzaren

aurretik. Berriozar taldeko Unai Ruiz Etxeberria izan zen hirugarren. Cesar Razkin Igoa sakandarra laugarren sailkatu zen eta Sakanako Saria jaso zuen, xakelariak sari bakarra jaso ahal zutelako. Beraz, Ekain Galarzak bigarren saria jaso zuen eta Cesar Razkinek Sakanakoa.

Emakumezkoetan Berriozar taldeko Saioa Torres Camacho izan zen txapelduna, sailkapen absolutuan hemezortzigarren, bere taldekide Maria Rodriguez Piñarren eta Yolanda Ruperez Trapoteren aurretik. 14 urtez azpiko saria Oberena klubeko Raul Burriel Uretak jaso zuen, absolutuan hamargarren, eta bigarren saria Arrotxapea tal-

deko Ekaitz Mayordomo Lopezek. Helduen saria Oberena klubeko Isidro Diaz Redondorendako izan zen, absolutuan hamabosgarren, eta bigarren saria RIO taldeko Juan Fraile Rojorendako. Iturmendiko alkate Imanol Arbizu Perpiñak banatu zituen sariak.

Sakandarrei dagokienez, parte hartze oso polita izan zen, aspaldiko jendetsuena. Ekain Galarza eta Cesar Razkinez gain, Juan Andres Cerro zazpigarren sailkatu zen, Aimar Ieregi zortzigarren, Mikel Castellano bederatzigarren, Sebastian Insausti hamabigarren, Koldo Flores hamaseigarren, Luken Galarza hogeita batgarren eta Marcos Alvarez hogeita bederatzigarren.

Sakandar gehiago behar dira

Sakanako Zaldi Beltza Xake Taldeak azaldu dutenez, Sakanako xakeak lorealdia bizi du. Denboraldi batez Nafarroako Txapelketan lehiatzeko talderik ez zuten atera ahal izan gutxienez zortzi kide behar dira taldekoan lehiatzeko, eta nahiz eta orain xakelari gehiago egon, txapelketetan lehiatu ahal izateko jende gehiago behar dute (634 447 108 telefonora deitu).



Kontzentrazioa erabatekoa zen.

Irati Igoa txapelduna

FRONTENISA Irati Igoa etxarriarrek Nafarroako beste txapel bat jantzi du. Amaia Espinalekin batera 21 eta 30 irabazi zieten Aizpururi eta Iriarteri Nafarroako Frontenis Txapelketako finalean, Biskarreten. Nafarroako Paleta Gomako finalean, Gure Pilotako Gaintzarainek eta Larrazak Ormazabali eta Lazkozi irabazi zieten eta Camposek eta Erauskinen Azanzari eta Nuini.





Larunbatean Nafarroako Palako 3. Mailako Txapelketa irabazi zuen Asier Galarzak. Frontenisean, txapeldunordea da. UTZITAKOA

Estatuko txapelketarik onena, non eta Irurtzunen

FRONTENISA Ilbeltzaren 8an 64 bikotek hartuko dute parte Asier Galarza Iriartek antolatutako Irurtzun-Arakilgo VII. Frontenis Txapelketan, estatuko jokalaririk onenak. Txapelketa bederatzi frontoietan jokatu da eta bertara animatu ditu sakandarrak

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN Ilbeltzaren 8an jokatu da Irurtzun-Arakilgo VII. Frontenis Txapelketa. Txapelketa honen atzean Asier Galarza Iriarte frontenis jokalaria eta palista dago. Duela 8 urte hasi zen txapelketa antolatzen –joan zen urtean ezin izan zen jokatu, pandemiagatik– eta oso pozik dago, "urteak aurrera joan ahal gero eta partaidetza handiagoa duen txapelketa" delako.

Hasierak

Asier Galarza Irurtzun klubeko pilotaria zen. Arbizuko Aldabiden ere trebatu izan zen, eta eskuak huts egin ziotenera arte esku pilotan ibili zen, 19 urte bete arte. Garai haietan bere kuadrillakoekin Irurtzungo Mutilen Goxua Esku Pilotako Txapelketa eta Nesken Frontenis Txapelketa antolatzen zituen. "Txapelketak hiruzpalau hila-bete irauten zuen eta hamar lagun artean antolatzen genuen, aurretik antolatzen zuen

kuadrilla bati lekukoa hartu eta gero. Lauzpabost urte egon ginen antolatzen, baina batzuek ezin zutela, azkenean utzi egin genuen" gogoan du Galarzak. Esku pilota utzi zuenean, frontenisean hasi zen. "Orduan ikusi nuen egun bateko frontenis txapelketak antolatzen zirela eta Irurtzunen halako frontenis txapelketa bat antolatuko nuela erabaki nuen. Harrera ona izan zuen, eta gaur arte" azaldu du.

Irurtzun-Arakilgo VII. Frontenis Txapelketa estatu mailako txapelketarik jendetsuena izango da, 64 bikote ariko direlako. "Aurreko edizioan ere gureak frontenis jokalaria gehien bildu zituen, 48 bikote, baina beranduago Aragoin kopuru bereko

"FRONTENISA HEMENGOA DELA USTE DUGU, BAINA KANPOAN IKARAGARRI JOKATZEN DUTE"

beste bat egin zen. Aurten, 64 bikote izango ditugu. Tokiak beteta daude, baina erreserbako izenak hartzen ari gara, gaixotasun, lesioren bat edo azken ordukoen bat egonez gero toki horiek betetzeko" nabarmendu du Asier Galarzak.

Lehendabiziko edizioetan inguruko jendeak ematen zuen izena. "Tolosaldeko bikote bat zen urrutikoena zena. Baina ni txapelketa askotan parte hartzen hasi nintzen eta jokalaria asko ezagutu nituen. Horrela, geroz eta jokalaria gehiago hasi ziren Irurtzungo txapelketara etortzen, sariak handitu ahal izan nituen eta horrek ere jende gehiago erakarri zuen" dio Galarzak.

Frontenisarekiko ezjakintasuna Ilbeltzaren 8an bertako frontenis jokalariek gain, Valentzia, Barzelona, Leon, Madril, Burgos, Segovia, Kanariar Irlak eta Andorratik etorritako jokalaria bilduko dira Irurtzunen eta Galarzak nabarmendu duenez,

estatuko onenak. "Uste dugu frontenisera Euskal Herrian eta gehienez ere Errioxan edo hurbiletako probintzietan jokatzeko dela, eta hori ez da horrela. Nik txapelketa gehienak hemendik kanpo jokatzeko ditut. Valentzia, esaterako, ikaragarri jokatzeko da frontenisera. Baita Madrilen, Valladoliden, Leonen... frontoi pila dituzte. Kanpora ateratzen hasi nintzenean zur eta lur geratu nintzen hemendik kanpo dagoen maila ikusita. Ikaragarri jokatzeko dute" nabarmendu du.

Bestalde, Euskal Herrian frontenis beti bigarren mailakoa izan da esku pilotaren eta gainontzeko erremintekin alderatuta. "Eta hala jarraitzen du izaten. Badirudi soilik lagunartean jokatzeko dela. Baina geroz eta txapelketa gehiago daude, eta Nafarroako Pilota Federazioan federatzen eta federazio frontenis txapelketetan edo bestelako txapelketetan aritzera animatzen dut jendea, baita emakumeak ere. Gutxika, geroz eta gehiago dira" dio.

Euskal Herrikan kanpoko frontoi gehienak estali gabekoak omen dira. Eguraldi hobe baidute. Hemengoak baino motzagoak dira, 30 metro eta 8 koadro ingurukoak. Euskal Herrian txapa 90 zentimetro eta metro bateko altueran dago, kanpo-koetan 60 zentimetrokoa da. "Horrek jokoa ikusgarriago egiten du, askoz gehiago arriskatzeko ditzulako" dio frontenisak guztiz harrapatua duen Galarzak. "Aurten Estatuan 21 frontenis txapelketa jokatu dira eta uste dut soilik lau asteburu libratu ditudala, gainontzeko guztietan aritu bainaiz, 16 txapelketetan, palakoak eta beste kontuan hartu gabe" aitortu du.

Urterik onena

2021a bere urterik hobereena izan dela nabarmendu du. Estatuko 16 txapelketetatik bost irabazi ditu –Mallabian binakakoa eta buruz burukoa, Sierra de Arealon (Soria), Faraduesen (Aragoi) eta Sastagon (Aragoi)–, bost aldiz txapeldunorde izan da eta hirutan hirugarren. Nafarroako

"NIRE URTERIK ONENA IZAN DA HAU: 16 TORNEOETATIK BOST GARAIPEN ETA BOST BIGARREN POSTU"

Federazioko txapelketetan 2020an Nafarroako Binakako Frontenis Txapelketa irabazi zuen eta aurten txapeldunordea izan da, Juanjo Dominguezekin. Beste hiru podium ditu Nafarroatik kanpo. Bestalde, larunbatean Nafarroako Gizonezkoen Buruz Buruko Paleta Gomako Hirugarren Mailako txapelketa irabazi zuen Galarzak, Garciari 23 eta 25 irabazita. "Oso pozik nago. Ea Irurtzungo txapelketan denboraldia borobiltzen dudana" dio.

Asier Galarzak hasieran Ramontxo Casteigekin jokatzeko frontenisean, baina gero beste hainbat bikoterekin aritu izan da. Sarritan jokatu du Burugosko Johnnyrekin, aurten Jesus Dominguezekin aritu izan da, baita beste batzuekin ere.

Irurtzungo txapelketa

Irurtzun-Arakilgo VII. Frontenis Txapelketa, estatuko jendetsuena izateaz gain, garrantzitsuenak ez bada garrantzitsuenetakoa izango da, "maila oso handia" baitu. Bertan arituko dira maila gorenean dauden Madrilgo bizpahiru bikote, Espainiako txapeldunak edo txapeldunordeak izaten direnak, Dani eta Miguel artean, aurten mundiala irabazi duten Victor eta Joan Valentziarrak, Jose Angel Claveria pitillasdarra eta Adrian Ruiz bilbotarra, Irurtzungo azken edizioako txapeldunak, eta goi mailako bestelako bikoteak. "Ezin da gehiago eskatu" dio Galarzak. Irurtzundarrak estatu mailan gorenean dagoen Madrilgo Alvarorekin osatuko du bikoa. "Irurtzungo azken edizioan hirugarren sailkatu ginen; ea aurten berdintzerik edo hobetzerik dugun" dio. Kanarietako Christian eta Zaragozako Ivan ere oso onak omen dira, baita Andorrako Ruben eta Manolo ere, duela hiru urte Irurtzungo txapelketa irabazi zutenak.

Azken ukituak

Jokalaria hauek guztiak bezperatik etortzen dira Irurtzunerara, eta bertako hotelek, jatetxeek eta tabernek mugimendua nabaritzen dute. "Herriarendako onuragarria da, giroa egoten delako". Txapelketa egunean Machainen bazkaltzera biltzen dira guztiak. "Oso giro ona dugu. Kanpotarrak oso gustura etortzen dira, gu euren txapelketetara goazenean bezala. Asteburu pasa, txapelketako partidak jokatu,

pote batzuk hartu... lagun arteko primerako giroa dugu" dio Galarzak. Guztia prestatzen lan handia izaten du: babesleak eta sariak lotu, partida guztiak eta txapelketa bera prestatu, frontoiak lortu... Soilik azken xehetasunak lotzea falta zaio. "Joan zen urtera arte txapelketako partidak Irurtzunen, Etxarrenen eta Aldatzen jokatzeko ziren, baina aurren, hiru frontoi horietaz gain, goizeko sailkatze partidak Etxarri Aranatzeko, Arbizun, Lakuntzan, Uharte Arakilen, Latasan eta Lekunberrin jokatuko dira ere. Bederatzi frontoi dira guztira" azaldu du.

Izena eman duten jokalariek guztiek kamiseta jasoko dute opari, eta Lacturaleren produktu lotea. Gutxienez hiru partida jokatu behar ditu biko bakoitzak goizeko txandan, eta gero onenek egingo dute aurrera. Txapelketa jokatzeko den bitartean elikadura hornidura izango dute, eta jokoan dauden sariak potoloak dira: txapelkunendako 800 euro eta txapelak, bigarrenendako 400 euro eta hirugarrenendako 100 euro. Txapelketako partidak 20 minutura edo 20 tantotara jokatuko dira eta tanto bikoitza dago; hau da, lehendabiziko botean pilota ez bada ukitzen, aurkariak bi puntu lortuko ditu. Arau honek partida ikusgarriago egiten du, jokalariek pilota guztietara heltzeko esfortzua egin behar dutelako.

Ikuskizuna jarraitzeko gonbita

Irurtzundik 8-10 bikotek hartuko dute parte txapelketan. Baita Etxarri, Iturmendi eta Urdiaingo bikote bana ere. "Sakandar guztiei animatzen diet halako mailako txapelketa bat etxean bertan izanda, bai parte hartzera (699 453 490) edo ikusle moduan hurbiltzera gerturatu daitezela. Goizean aipatu herri guztietan partidak jokatuko dira, eta bazkaldu eta gero, Irurtzunen jokatuko dira final laurdenak, finalerdia eta final handia, 18:00etatik aurrera. Ikuskizun polita izango da" egin du gonbita.

"64 BIKOTE, 9 FRONTOI, JOKALARI ONENAK... SAKANDARRAK TORNEOA JARRAITZERA ANIMATZEN DITUT"

Korrika despidituko dute 2021 urtea

ATLETISMOA Altsasun XLII. San Silvestrea jokatuko da abenduaren 31n, Irurtzunen V. Pikubestrea eta Uharte Arakilen San Silvestre Traila (16:00etan). Olaztin bertan behera geratu da San Silvestrea eta baita Urbasako San Silvestre txirrindularitza igoera ere

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Aurren bai, urtea korrika despiditzeko aukera izanen da Sakanan. Joan den urtean ezinezkoa izan zen, baina Altsasun, Irurtzunen eta Uharte Arakilen San Silvestre lasterketei eutsi diete. Azken orduko aldaketarik ez badago behintzat, zapatilak jantzi eta urtea korrika despiditzera gonbidatu dituzte sakan-darrak, pandemiak eskatutako segurtasun neurriak beteta. Probak hasi baino lehen eta probak bukatu bezain pronto maskara jantzi beharko dute korrikalariak. Aldiz, Olaztin nahiago izan dute San Silvestrea atzeratzea, pandemiaren egoera kontuan hartuta.

Altsasukoa, beteranoena

Altsasuko 42. San Silvestrea izango da aurren ospatuko dena. Altsasukoa Nafarroako proba zaharrena da. Aipatu proba, Mario Lopez de Uralde Memoriala izendatu zuten, bertan 17 urtez gailendu zen korrikalari altsasuarraren omenez. Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak antolatuta, abenduaren 31n, ostiralarrekin, 18:00etan emanen zaio hasiera Altsasuko San Silvestreari, haurren eta gaztetxoeren lasterketarekin. Aurrebenjaminak (buelta bat), benjaminak (bi buelta), kimuak (3 buelta) eta haurrak (lau buelta) plaza inguruetan antolatutako zirkuituan ariko dira. Gainontzeko kategoria guztiek, kadeteetatik aurrera, 19:00etan Altsasuko udaletxe paretik abiatuko den proba nagusian (5 km) parte hartuko dute. Korrikalariak Altsasun barna prestatutako zirkuituari hiru buelta eman beharko dizkiote. Ohi denez, soilik lehendabiziko hiruren denborak hartuko ditu antolakuntzak, eta bukaeran sari ematea izango da. Dantzaleku Sakanak saski ederra zozketatuko du proba bukatutakoan.



Korrikalariendako berezia da San Silvestreetan arituz urtea despiditzea. ARTXIBOA

AZKEN ORDUKO ALDAKETARIK EZ BADAGO, HIRU SAN SILVESTRE IZANGO DITUGU SAKANAN

Izena ematea dohainik da, eta aurretik egin daiteke, Dantzaleku Sakana taldeko webgunean. Bestela, egunean bertan.

Altsasuko azken San Silvestrean, 2019an, kategoria guztiak kontuan hartuta 600 korrikalari baino gehiagok hartu zuen parte. Sergio Garcia de Eulate Maia altsasuarra (16:00) eta Izaskun Beunza Azazeta olaztiarra (18:11) izan ziren garaileak. Biek euren seigarren San Silvestrea irabazi zuten.

Irurtzunen, V. Pikubestrea

Irurtzongo Pikuxar Euskal Txokoak, Piku Gabonak egitarauaren barruan antolatuta, herri lasterketa antolatu du San Silvestre egunerako, V. Pikubestrea. Aurren Lizarra kaletik abiatuko dira lasterketak, Pikuxar elkarre paretik. 16:30ean haurrak hasiko dira -6 urte bitartekoak

150 metroko proba izanen dute eta 7 eta 13 urte artekoak 500 metrokoa- eta 17:00etan, aldiz, helduen proba (4,2 km). Haurrek dohainik dute parte hartzea, baina helduen proban ariko direnek 2 euro ordaindu beharko dituzte.

San Silvestre Traila Uharten

Uharte Arakilgo Aralar Mendi taldeak basoan eta mendian korrika egiten despiditu nahi du urtea. San Silvestre Traila antolatu dute, Itxesi parkea abiapuntu hartuta jokatuko dena, abenduaren 31n, 16:00etatik aurrera. Izena ematea egunean bertan egin beharko da, Uharte Arakilgo igerilekuetako tabernan, 15:30etik aurrera.

Urbasako bizikleta martxarik gabe

Altsasu Kirol Elkartek bertan behera utzi du abenduaren 31ko 12:00etarako antolatua zuen XXXVIII. Urbasako San Silvestre Txirrindularitza Igoera. Pandemiaren egoera nola dagoen ikusita hartu du erabakia Altsasu Kirol Elkartek. Ekitaldi estimatua da. Azkeneko edizioan, 2019koan 280 txirrindularik hartu zuten parte.



Irurtzundarrak, Ergan. ARTXIBOA

MENDIA Urteari agurra eta ongi etorria, mendian

Mendizaleen artean ohikoa da urte bukaerako hasierako egun berezi hauetan mendira joatea. Aralar, Beriain, Urbasa eta beste mendizaleen topaleku izaten dira. Abenduaren 31n irurtzundarrak Ergako Trinitatera joango dira. 9:00etan jarri dute hitzordua, Pikuxarren. Txokolate beroa hartu eta gero joko dute Trinitatera. Lakuntzarrek Lakuntzeskuarrira igoz despidituko dute urtea, eta Altsasuko Mendigoizaleak eta Olaztikotik mendizaleek Aizkorri- joko dute. Urteko lehen igandean Altsasuko Mendigoizaleak Bargagain izanen dute topaleku eta Errege Egunean, ilbeltzaren 6an, Sakanako Mendizaleak Beriainen bilduko dira.

ATLETISMOA Altsasuko Kroserako izena ematea zabalik

Ilbeltzaren 16an, 36. Altsasuko Krosa jokatuko da Dantzalekun, Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak Nafarroako Atletismo Federazioaren eta hainbat babesleren laguntzarekin antolatuta. Hainbat lasterketa izanen dira: 9:45ean kros herrikoia abiatuko da (5.960 m), 10:30etik aurrera Nafarroako Kirol Jokoen kategoria txikien erreleboak, eta 12:45etik aurrera Altsasuko Krosa, aldi berean Nafarroako Banakako Kros Txapelketa izango dena (20 urtez azpiko emakumeak 5.960 m, 20 urtez azpiko gizonek 7.800 m eta lasterketa absolutuak 9.800 m). Izena ematea zabalik dago Dantzaleku Sakanako webgunean (10 euro).



2019ko 'Zama doinuz arindu' jaialdiaren aurkezpena. ARTXIBOA

"Zerrendak erakusten du jaialdiaren maila"

MIKEL MUNDIÑANO 'ZAMA DOINUZ ARINDU'

Zazpigarren urtez urtarilaren 16an Zama doinuz arindu jaialdia egingen dute Etxarri Aranazko kultur etxean

Eneida Carreño Mundiñano ETXARRI A. Beste urte batez, eta dagoeneko zazpi dira, *Zama doinuz arindu* elkartasun musika ikuskizuna egingen dute urtarilaren 16an Etxarri Aranazko kultur etxean, Sarek, bertako preso senideak eta lagunak antolatuta. Bi saio egingen dira: 17:00etan eta 19:30ean. Dagoeneko sarrerak salgai daude udaleko webgunean, baita herriko Xapatero eta Leku Ona tabernetan ere. Mikel Mundiñano antolakuntza taldeko kidea da.

Zer da 'Zama doinuz arindu'?

2016an Etxarri Aranatzan martxan jarri genuen egitasmo bat da, jaialdi bat, kontzertu ikuskizun bat, Euskal Herriko abeslari ezagunak gurera ekarri eta herriko kultur etxean formatu akustikoan egiten duguna. 2016an ekin genion jaialdiari eta zazpigarren edizioari begira gaude dagoeneko. Aurreko sei urtetan jaialditik pasa direnen zerrendak argi erakusten du zer nolako maila duen ekimenak: Esne Beltza, Oreka TX, Ruper Ordorika,

Vendetta, Naroa Gaintza, Tapia ta Leturia, Su ta Gar, Zopilotes Txirrius, La Chula Potra, Hutsun, Gozategi, Anje Duhalde, Doctor Deseo, Fermin Valencia, Hesian, Gorka Urbizu, Mikel Urdangarin, Niko Etxart, Ines Osinaga, Kutxi Romero, Petti, Gatibu, Ekiza, Irati Lasa, Juan txo Arakama-Lil Martin, Fermin Muguruza-Deskontrol, Pantxoa Carrere, Akelarre, Huntza, Afu, Anari, Esti eta Mikel Markez, Zea Mays, Rottem XIII, Bad Sound, Keu Agirretxe-Haimar Arejita,

Estitxu Pinatxo, Juantxo Skalari, Eñaut Elorrieta, Zetak, Brigade Loco, Erramun Martikorena, Skabidean eta Anita Parker. **Zeintzuk dira jaialdiaren helburuak?** Euskal preso eta haien senide eta lagunei urrunketak eta salbuespenezko espetxe politikak sortzen dien zama arintzea du helburu. Datu esanguratsu bat: azken 46 urtetan, hamabost hilabete besterik ez dira egon, Etxarri Aranazko herritarren bat preso edo exilioan egon gabe. Denbora honetan, 40 etxarriar inguruk ezagutu dute kartzela, osotara hirurehun urte baino gehiagoko espetxe zigorra pilatuz. Datu horiek izugarriak dira 2.500 biztanle dituen herri txiki batendako. Gaur egun Asierrek, Luisek, Gurutzek, Juan Ramonek, Unaik eta Karlosek espetxean segitzen dute. Gatazkak oraindik orain itxi gabeko ondorioak ditu. Kartzela politika anker honek giza eskubideak urratzen ditu. Motxila horren zama, zentzu guztietan, arintzeko ariketa da ikuskizun hau. Azken hilabetetan urrats garrantzitsuak eman badira ere oraindik bidea dugu egiteko. Urrunketarekin amaitu beharra dugu, eta salbuespen legedia behin betikoz amaitu, etxerako bidea egin dezaten behingoz euskal preso guztiek. Bitartean, zama arintzen segituko dugu.

Nork antolatzen du jaialdia?

Etxarriko Sarek eta herriko preso senide eta lagunek aurrera eramaten dugun ekimena da. Honetarako propio martxan jarritako lan talde bat dago antolaketan. Laguntzaileen artean Etxarri Aranazko Udala, *Ahotsa. info*, *Naiz* eta *Hamaika Telebista* daude.

Urtero gai bat jorratzen duzue. Zein gai jorratu dira orain arteko edizioetan?

Gai desberdinak landu izan ditugu, baina guztiek urrunketak eta euskal presoek ezartzen zaien salbuespen neurrien salaketa dute ardatz: urrunketaren gordintasuna, motxiladun umeen errealitatea, senideen zein preso bizipenak...

Nork parte hartuko du aurtent?

Azken sei urtetan bezala kartelarekin oso pozik gaude. Berriz ere lehen mailako musikariak izanen ditugu gure artean. Aldez aurretik, eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartuko duten guzietan: Amak, Bulego, Unidad Alavesa, Leihotikan, Zelanda, Onki Xin, McOnak eta Modus Operandi. Gainera, Antton Telleria, Mirari Martiarena, Joxe Aldasoro eta Nerea Arriola bakarriketalariek parte hartuko dute. Musika estilo desberdinak, adin eta gustu desberdinetarako aproposa. Azkenean, estilo aldetik zortzi talde izanen dira, bakoitzak bi kantu egingen ditu, eta denen artean jaialdi handi bat egingen dute, denen gozamenarako.

Zazpigarren jaialdia

Zama doinuz arindu VII urtarilaren 16an, igandean, egingen dute 17:00etan eta 19:30ean. Amak, Bulego, Unidad Alavesa, Leihotikan, Zelanda, Onki Xin, McOnak eta Modus Operandi musika taldeek eta Antton Telleria, Mirari Martiarena, Joxe Aldasoro eta Nerea Arriola bakarriketalariek parte hartuko dute.



BAZTERRETIK
RICARDO ARETA
URRESTARAZU

Deserrite

Joan den abenduaren 7an, Gasteizko Jimmy Jazz areto mitikoan, 2021eko Gazte Talent taldeen lehiaketaren finala ospatu zen, DESERRITE taldea ordezkari sakandar gisa zelarik, hiru talde finalisten artean. Eszenatokia zapaldu zutenetik suntsitu zuten,

merezitako lehen saria eskuratuz.

Altsasuko eta Urdiaingo talde honek, nahiz eta gaztea eta berria izan, esperientzia indibidual handia du bere kideen aldetik. Horietako batzuk Lakuntzan 2017an egin zen Pop Rock Sakana lehiaketatik pasa ziren, baina hainbat taldetan eta oso emaitza ezberdinekin.

Iñaki eta Gaizka bi gitarristak Garabatosen hausturatik datoz, Jesus eta

Hodei elektrotxarangako kideak dira, Elektrokela daude, eta Haritz Haizkan taldeko baxu-jotzailea ere bada. Nahiz eta kideak gazteak izan eta egungo musika joerak direnak izan, Rock and Roll egiten dute, eta oso argi dute zein den beren estiloa eta soinuua. Hala erakusten dute zuzenean oinarri erritmiko suntsitzailearekin eta hamarkada batzuk lehenagora garamatzaten gitarra riff

onekin. Soinu horma horren gainetik Jesusen ahots indartsua gailentzen da, lehen entzunaldian itsasten diren melodiak eta leloak defendatuz. Gitarra kontuek ginga jartzen diote pastelari eta argi uzten dute hau rocka dela, besterik ez.

Errepertorio zabala duten arren, gaur egun gai bakarra grabatu dute estudioan, eta laster sareetan hegan egitea espero dugun bideoklip bat egiten ari dira.

2021 urte zoro hau nahiko emankorra izan da Deserriterentzat, soinu propioa, errepertorio ona bereganatu dute eta nahiz eta bolo gutxiarekin Gasteizen zuzeneko oso indartsua dutela erakutsi zuten. Espero dezagun 2022an, lehen bideoklipa aurkeztuta, eszenatokia eta erreproduktzio zerrendak handi askorekin partekatzen ikusiko ditugun urtea izatea.

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Arruazutik Izabara bidea egin zuen Aritz Ganboa de Miguel artzain arbazuarrak, mendien artean, aitonen herriak elkartuz. *Bideak* dokumentalean erronka jaso zuen Xabier Unanua Goi-koetxea irurtzundarrarekin egindako proiektuan. Hasieratik egitasmoak "ibilbide bat" izanen zuela eta Durangoko Azokara iritsiko zela azaldu du Ganboak. Dokumentala 70 bat herritan aurkeztu dute, nazioarteko jaialditan sailkatua izan da, eta proiektuan zehar "planifikatuta ez zeuden gauzak" atera ziren: "Jendearekin dokumentala partekatuz hausnartzera eraman genuen jendeari gustatzen zitzaiola, baina publikoaren zati bati ez zitzaiola iristen: haurrak". Aritz txiki baten istoriotxo bat kontatzen hasten ziren.

Baloreak

Baina publikoaren zati horri dokumentalak erakusten dituen baloreak behar bezala ez iristeak "publiko guztiaren artean hausnarketa partekatzeko beste formatu bat" behar zuela izan pentsatu zuten. Haurrei begira istorio bat sortu behar zuten, "eta beste sorkuntza prozesu bat" behar zuen ere. "Ordura arte ikus-entzunezkoa eta musika erabili genuen, eta hemendik aurrera ilustrazioa eta narrazioa izanen ziren". *Bideak* ipuina, ez da liburu normal bat. Bertsoaren bidez ere istorioa kontatu zitekeela pentsatu zuten, eta Euskal Herriko hamahiru bertsolarirekin hitz egin zuten: Eneko Lazkoz etxarriarra, Mixel Aire, Onintza Enbeita, Oihana Iguaran, Miren Amuriza, Julio Soto, Maddalen Arzallus, Oihana Bartra, Joanes Etxebarria, Elixabet Etxandi, Ruben Sanchez eta Imanol Lazkano. Narrazioa Joana Ziganda Olanok idatzi du eta ilustrazioak Iker Uribetxeberria Garmendiak sortu ditu.

Liburuak dokumentalak kontatzen duena kontatzen du. "Filmak gure mendialdea zeharkatu du, eta mendialde horretan izan ginena, izan garena eta izan

'BIDEAK' IPUINAK DOKUMENTALEAN AGERTZEN DENA KONTATZEN DU, BESTE FORMATU BATEAN

'Bideak'-en bide berriak

'Bideak' dokumentala oinarri hartuta, izen bereko ipuin eta bertso sorta aurkeztu dute. Joana Zigandak istorioa idatzi du eta Iker Uribek ilustrazioak sortu ditu. Besteak beste, Eneko Lazkoz bertsolariak parte hartu du ere



Iker Uribe eta Joana Ziganda 'Bideak' Durangoko Azokan aurkezten. UTZITAKOIA

nahi dugunaren inguruko hausnarketak agertzen dira; ondarea eta landa eremua eta bertako kultura agertzen zaigu. Horren beharraz hitz egiten da". Liburuan ere mendi zeharkaldi bat agertuko da, baina istorioa pixka bat aldatzen dela azaldu du Ganboak. "Baina pertsonaia berdinak agertzen zaizkigu, pasarte berdinak agertzen dira ere, baina beste lengoia batean; beste begirada batekin".

"Oso gauza bitxia eta polita" izan da bere burua marrazki batean bihurtuta ikustea. Lehenengo aldiz Joana Zigandak eta Iker Uribetxeberriak aurretik sortutako istorio batean oinarrituta ipuin bat sortu dute. Aurretik sortutako ipuinak haiek sortutako istorioak izan dira. "Feedback oso polita dugu bion artean eta istorioari forma ematen diogu. Kasu honetan desberdina izan da". Dokumentala ipuin bihurtu

behar zutela esan zieten eta erronka bat izan dela azaldu du Uribek, "istorioa sortuta dagoelako eta horri ipuin forma eman behar genion". Zigandaren lana azpimarratu du ilustratzaileak. "Magikotasun puntu hori eman dio ere". Ipuina egiteko dokumentala "aldi dezentetan" ikusi dute eta Unanuak eta Ganboak "zenbait baldintza" jarri zituzten, esaterako, bertsolarien karikatura agertzea nahi zuten ere.

Durangoko Azoka

Bideak ipuina Durangoko Azokan aurkeztu zuten Zigandak eta Uribetxeberriak. Ganboak eta Unanuak proiektuaren salmahaia jarri zuten Landakogunean ere. "Ongi eman zitzaigun, baina kontuan izan behar da ez zela Durangoko Azoka normal bat izen". Normalean 100.000 bisita baino gehiago dituen azokak, aurtun 25.000 bisita izan zituen edukiera mugatua zuelako. Aurretik txanda hartu behar zen ere. Dokumentalaren DVDa eta ipuina batera saltzen zuten, eta dagoeneko saltzen dute Sakanako zenbait puntutan: Irurtzungo Martxueta eta Pikuxarren, Arruazuko Ostatuan, Lakuntzako Tximonenaren eta Ogi-berrin, Etxarri Aranazko Kaxetane ta Altsasuko Arkatz eta Liburunda liburutegietan.

"Inflexio puntu bat" izan da Durangoko Azoka. "Ordura arte bidea gure eskutik joan da, eta dokumentala ikusi nahi zuenak gurekin kontaktatu behar zuten. Orain edozeinek eskuratu dezake, bakoitzak bere bidea emanen dio". Formatu desberdinak dituen, "denek izanen dute horri buruz hitz egiteko eta hausnartzeko aukera". Pertsona eta auzo bakoitza "erabiltzeko libre" dela aipatu du Ganboak.

Dokumentalaren filosofiari jarraituz, "eta behar komunikatiboki jarraituz", baloreak gizartearazten jarraitzen du Ganboak: "*Biba zuek* ETBko leiho horretatik *Bideak* dokumentalean agertzen dena egunero plazaratzen dugu". Etorbizunean helburu berdinarekin proiektu gehiago sortzen badira ez dituztela atek ixten esan du arbazuarrak, "ezta zabaltzen ere".

Bideak Euskal Herriko 70 bat herritan aurkeztu dute eta nazioarteko zenbait jaialditan sailkatua izan da. Sariren bat irabazi dute ere. "Oso pozik gaude". Poz horren barruan aurtun Mendifest-en sailkatuak izan dira ere, "justu Durangoko Azokarekin batera" egin zela. "Aurtun lan asko kanpoan gelditu dira, eta oso pozik gaude bertan egon izanagatik".

LEHENENGO ALDIZ URIBEK ETA ZIGANDAK AURRETIK SORTUTAKO ISTORIO BAT LANDU DUTE

"Figura txikirik ez dut lortzen"

Etxeko estalpeak gordetzen du han jarritako jaiotza. Klean egonik, Bureña auzoko Opolin kaletik hainbat dira Luis Asensio de Miguelen jaiotza ikustera pasatzen direnak. Joan den asteaz geroztik etxeko ate ondoan dago erakusgai

Alfredo Alvaro Igoa ETXARRI ARANATZ

1 Nondik heldu zaizu zaletasuna?

Nire etxean betidanik egon dira jaiotzak. Sorian txikitxo bat genuen, portale batean, izkinan. Baina Etxarrira etorri ginenetik pixka bat handiago bat jartzen genuen. Amaren etxean beti jartzen genuen jaiotza etxe barruan. Gero handiago bat, mahaitxo baten parekoa edo. Hau kanpoan dago itxurako tokia delako, eta oso ongi gelditzen da. Eta urak ihes egiten badu, kalera doa. Ez dago arazorik.

2 Noiz jartzen duzu jaiotza?

Joan den astean. Norbait begira badago pizten dugu. Baina, bestela, normalean 24an gaueko mezara joaten garenean pizten dugu jaiotza. Eta 25ean baliteke egun guztia piztuta egotea, jendea ikustera etortzen baita.

3 Muntatzea kostatzen da?

Joan den astean lau egunetan egon nintzen prestatzen, tarte batez egunero. Zorionez arratsaldean eguzkia atera zen eta hor klean ederki jotzen zuen. Laino egun bat balitz, hotzez akabatzen egonen nintzateke. Jaiotza egindako modulutan ba-



Jose Luis Asensio de Miguel, bi metroko jaiotzarekin.

natuta dago. Sei dira. Haiek hartu eta muntatzea besterik ez da. Nahi izanez gero urte batetik bestera bideak desberdinak egin ditzakezu.

4 Bakarrik aritzen zara, edo laguntza duzu?

Nik bakarrik egiten dut. Etxolak, gazteluak, iturriak, jaiotzak, korrak... etxean egin ditut. Iturrieta-



ko bat Leteren etxe parean zegoenaren berdina da, izarra. Poliespanarekin eginak daude eraikinak. Pinuak ere nik egindakoak dira. Fardoetako sokekin eginak daude. Muntatzen lagundu egiten didate. Semeak igotzen laguntzen dit, bestela nik ezinen nuke igo.

5 Figurarik gabeko gabeko jaiotza ez da ezer. Berritzen zoaz edo betikoak dira?

Figura zaharrak dira, baliorik gabekoak. Baina orain halako figura txikirik ez duzu lortzen. Zeren etxe txikiak badira ez duzu figura handi bat sartuko. Ardi, zaldi, ahuntz edo halako zerbait gehiago opatu nahi nituzke, baina hiruzpalau cm-ko altuerakoak. Interneten begiratzen hasten zara eta halako txikikeria batek hiruzpalau euro balio ditu. Eta hogei erosi behar badituzu, dirua da.

6 Urtetik urtera berrikuntzak sartzen dituzu?

Bai, paretako iturria berria da. Joan den urtean ur ihesa izan zuen eta ezin zen konpondu. Hura bota eta berria egin dut. Ibai bat egiteko asmoa nuen, baina heldu den urterako beharko du. Figura guztiak estatikoak dira.

7 Elektrizitatearekin eta iturgintzarekin, guztiarekin moldatzen zara?

Bai. Hor bonbilla bakoitzak bi kable ditu. Gehienak LED argiak dira. Jaiotzaren azpiko aldeak elektrizitate zentrala dirudi. Udan, klean, muntatu nuen iturri berria, bi ordutan. Urak ihes egiten badu, joan dadila. Eta iturri bakoitzak bere zirkuitua du. Urak gainezka egiten badu entxufeak eta beste ez bustitzeko moduan jarri ditut kableak.

8 Inon ikasi duzu?

Olatziarrak artistak dira. Ikastaroak antolatzen dituzte. Niri han irakatsi zidaten daki-dan apurra. Gustura egon nintzen. Haiekin oso eskertuta nago. Zaletasuna duenak eta ikasi nahi duenak handik pasatzea besterik ez du. Berehala lotuko da. Baina ez dut betarik haiekin segitzeko: ilobak, baratza, hau eta beste... Nik dudanarekin nahikoa da. Denbora gehiago eskainiko banio gauza gehiago eginen nituzke, politagoak. Baina, dena ezin da.

9 Bisitak etortzen dira?

Jendea etortzen da, bai. Auzoko haurrak parkean daudenean berehala etortzen dira ikustera. Mugitu izan dute figuraren bat. Eta eraman ere, baina gero bueltatu egiten dizkirate.

10 Jaiotza erakusketak ikustera joaten zara?

Noizbait Olatzagutira joan naiz. Baina gauez gidatzeko ere gaizki nabil, eta batzuetan horregatik ez naiz joan. Iruñera ere joan izan naiz. Baluartan prestatuta dutena oso ongi dago. Han ere nahikoa artistak dira. Olatziarrak kanpora joaten dira. Behin joan nintzen Kataluniara. Hura gehiegizkoa da. Gustatzen zait erakusketak ikustea.

11 Bestelako zaletasunik baduzu?

Andra Mari, Konzezio (zaharra) eta San Adrian ermiten maketak eginak ditut. Poliespanekin eta egurrarekin eginak daude. Batzuetan habeak poliespanez eginak daude, besteetan egurrez. Eta San Migel eta San Donato egin nahi nituzke.

Eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu!

URTE BERRI ON!

2022an gare ametsek argia ikus dezaten

gik DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo** info@gkomunikazioa.eus 619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu